# ttipi ttapa

415



## Agustin Aranburu leitzarraren bideoa

03

«Aizkolariak eta lasterkariak» izeneko bideoa egin du Agustin Aranburuk. 22 leitzarrekin bildu eta desagertzear dauden apostu eta desafio kontuak bildu ditu.



## 5.000 bizilagunen ur-hornidura

04

Zubieta, Ituren, Elgorriaga, Doneztebe eta Sunbillako bizilagunen ur-hornidura segurtatuko du Mendaur Planak. Lanen erdia baino gehiago egina da dagoeneko.

2006ko otsailaren 2a • XXVI. urtea




INAXIO PERURENA

28

# Esku bakarrarekin 220 kiloko harria



AMAIVR
SUKALDE ERAKUSKETA BERRIA
BISITA EZAZU

Modelo berriak:
rustikoak, modernoak eta praktikoak
Entzimerak, silestone, granito, corian...
Elektrogailu nazionalak eta alemanak
Proiektu eta erreformak:

Rosa Seminario 13 • ☎ 948 450400 • DONEZTEBE

EUSKARA

ATZO,
GAUR
ETA BIHAR

zatoz ikastera eta hobetzera!

ika

OTSAILEKO MATRIKULAZIOA
Izena eman:
· Bortzirietako Euskaltegia · 948 637 796
· Malerrekako Euskaltegia · 948 451 555
· Leitzaldeko Euskaltegia · 948 610 776
DEITU OTSAILAREN 10a BAINO LEHEN!

## DATUAK...

• «Aizkolariak eta lasterkariak» izeneko bideoa egin du Agustin Aranburu leitzarrak. Urtarrilaren 20an egin zuen jendaurreko aurkezpena herriko zineman.

• Urtebetez herriko 22 lagunen hitzak bildu ditu: aizkolariak, lasterkariak, desafioak eta kirol hauen inguruko pasadizoak laburbildu ditu bi orduko bideoan.

• 1972. urtetik ari da bideo grabazioak egiten eta beste zenbait lan egiteko material nahiko duela dio.



ARGAZKIA: Aitor AROTZENA

**Agustin ARANBURU** *Bideoaren egilea*

# «Plazan aritutako 125 aizkolari leitzar bildu ziren Aizkora Egunean»

Aitor AROTZENA

**Zer da «Aizkolariak eta lasterkariak» bideoan agertzen duzuna?**
Aizkora eta korrika munduarekin zerikusia izan duten hogeita bi leitzarren testigantzak bildu ditut. Apostu, desafio, marka edo txapelketen inguruko adierazpenak biltzen ditut, baita garaiko irudiak ere. Nik neronek 1972. urtetik bideoz grabatu ditut herri kirol ikuskizunak eta horiek ere tartekatzen dira, baita beste irudiak ere. Guzira bost orduko grabazioa egin nuen, baina pixko bat orraztu eta bi orduko bideoa gelditu da.
**Kontatu dizkizuten pasadizo guzien artean zein izan da bereziki hunkitu edo gustatu zaizuna?**
Kontu bitxiak azaldu dira hor, bai. Aizkoran nonbait aritu behar eta gauez nola aritzen ziren kontatu didate batzuk. Festetan aizkoran aritzeko arrebari haragia ekartzeko esan eta gauez katuak jan ziola aipatzen du beste batek... Gaur egun Sarrio lantegia dagoen horretan, oraindik makinak sartu gabe zeudela, egin zen beste apostu bat.
**Aizkora asko gustatzen zaizu eta bideoarekin ere grabaketa ugari dituzu. Zure bi zaletasunak uztartu dituzu lan honetan?**
Bai, eta gero ahozko artxibo bat ere badago, garai hartako egunkariak ere badira... Leitza beti izan da aizkolari herria, basolari asko izan zituen garai hartan, erronka handi bat edo beste egin zen eta horri buruz asko hitzegiten da bideoan. Donostian izandako ikuskizun baten ondotik Paco Hernandorena leitzarrak bota zuen erronka: hamar leitzar hamar gipuzkoarren kontra aritzeko, bakoitzak hamarna kanaerdiko moztu behar zituen, ehun guzira. Leitzatik hamar aterako zirela, Gipuzkoatik beste horrenbeste ateratzen baldin baziren. Azkenean ez zen gauzatu, zazpi gipuzkoar biltzen zituzten, baina hiru falta... Leitzan noizbait plazan aritutako 125 aizkolari kontatu ditut. Egun batean, Aizkora Egunean bildu ziren.

**«Gartziarena eta Astibia izan dira Leitzako aizkolari handienak, baina beste mota bateko lanetan, enbor batera eta, badira marka onak egindako beste aizkolari batzuk ere»**

**Guzi horien artean, zein izan da zure ustez aizkolaririk onena?**
Gartziarena eta Astibia aipatu behar dira, baina beste mota bateko lanetan, enbor batera eta, badira marka onak egindako beste aizkolari batzuk.
**Herriko jaialdi ezberdinei buruzko hainbat grabazio dituzula aipatu dugu arestian. Aizkolari eta lasterkariei buruzko bideo honen ondotik, besteren bat prestatzeko asmorik?**
Materiala bada, bai, baina honek nere asmoak bete ditu momentuz. Lan handia eskatzen du, urtebete eman ditut grabazioak egiten, gero handik eta hemendik moztu...
**Etorkizunera begira, ez dirudi aizkora desafioek etorkizun handirik dutenik. Nolabait, galtzera doan ohitura baten testigantza bildu duzu bideo honetan?**
Berriki Riañok eta Olanok egin zuten apostua, baina egia da lehengo mailetako aizkolarien arteko erronkak galtzen ari direla.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

Aurtizko araztegian eta ur-biltegietan lanean ari da Mariezkurrena eraikuntza enpresa.

MALERREKAKO LAU HERRITAN ETA SUNBILLAN

# Bortz mila bizilagunen ur arazoak moldatuko ditu Mendaur Planak

**Ituren, Elgorriaga, Doneztebe, Sunbilla eta Zubietako 5.000 bizilagun urez hornituko dituen Aurtizko araztegiaren lanak bide onetik doaz eta ekainerako akituak izanen direla uste da. Martxoan proba gisara hasiko da lanean, funtzionamendu egokia ote duen ikusteko.**

**Orain arte, ura hainbat iturrietatik hartzen zen Malerrekako herri hauetan: Iturenen Bortzadar, Xelat, Lortxundi, Berrurta eta Iturriatik; Elgorriagan Malkorratik; Doneztében Errotazarretik, Sunbillan Bidasoa errekatik hartzen zen eta Zubietan Txitxillotik. Baina, urte idorrak zirenean, herri batzuetara ez zen urik allegatzen udan eta ur-mozketak egin behar izaten zituzten. Aurtizko araztegia egitean eta Mendaur Plana erabat akitzean arazo hau moldatuko da eta herri hauetako bizilagunei kalitate oneko uraren hornidura segurtatuko zaie.**

Aitor AROTZENA

Urtarrilaren 18an, Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioko kontseilariak, Alberto Catalanek Aurtizko araztegiaren lanak bisitatu zituen. Berak aipatu zuenez, *«lan hauek akitzerakoan, hamar urteko lana ere akituko da eta hornidura zikloa osatuko da, ura hartu, biltegira eraman, potabilizadoran tratatu eta banatuko baita»*. Kontseilaria laguntzen, bere departamentuko bertze kideekin batera Jose Maria Gorosterrazu Iturengo alkatea, Jose Miguel Galarregi Elgorriagako alkatea, Jose Irigoien Doneztebeko alkatea, Leire Ortuoste Zubietako alkatea eta Jose Maria Hernandorena Sunbillako alkatea izan ziren, baita Mikel Petrirena Malerreka-

ko Mankomunitateko presidentea ere. Izan ere, Mankomunitateak bere gain hartuko du araztegiaren esplotazio eta mantenimendu lanak. Horretarako, erakunde berri bat sortuko da Mankomunitatearen baitan, Joxe Mari Gorosterrazu Iturengo alkateak aipatu digunez: *«Obra egiten duzu, baina martxan jartzearekin baditu bere gastuak. Bortz herriok mankomunitate bat antolatu edo Malerrekako Mankomunitatearen baitan bertze erakunde bat osatzea eztabaidatu genuen. Berria osatzeak langile eta gastu gehiago eskatzen zituen eta garesti ateratzen zen. Orduan, Mankomunitatean barnean bertze erakundea egin dugu»*.

Andres Sola, NILSAko zuzendariak proiektua nola gauzatu den zehaztu zuen: *«lehenbiziko fasean, sare orokorra egin zen eta erritmo onean gauzatzen ari den bigarren honetan, ura tratatzeko eta banatzeko behar den azpiegitura eraiki da. Araztegira segunduko 13 ur-litro ailegatuko direla aurrikusi da eta bada handitzeko aukera ere, herrietako ur kontsumoak hala eskatuko balu»*.

Bigarren fase honen ondotik, hirugarren fase bat geldituko litzateke egiteko, Sunbillara ura eraman ahal izateko. Fase hau oraindik estudioan dago eta proiektua egiteko dago. *«Nafarroako Gobernuak hurrengo planean sartuko duela uste dugu,* –erran digu Jose Mari Gorosterrazuk– *baina oraindik airean dago».* Hirugarren fase hau osatuta, 5.000 bizilagunen ur-hornidura segurtatuko da.

### Tratatu gabeko uraren biltegia, araztegia eta tratatutako uraren biltegia

Ura garbitu eta tratatuko dituen araztegiaz gain, bi biltegi ere eginen dira: 600 metro kubikoko ahalmena izanen duenean, ttikienean, ura bere horretan bilduko da eta araztegitik pasatu ondotik, 1.200 metro kubiko kabitzen diren tratatutako uraren biltegira pasatuko da. Hortik, herrietara doazen saretik banatuko da eta herriek beraiek dituzten biltegiekin osatuko da.

Lanen kostea 1,9 milioi eurokoa izanen da eta Nafarroako Gobernuko Toki Administrazio departamentuak ordainduko du, toki azpiegitura planen barrenean. Mariezkurrena eraikuntza enpresa ari da lanean eta bisita egiterakoan, lanen %56a egina zegoen.

## MENDAUR PLANA: ASPALDIAN ESKATUTAKO LANA



ARGAZKIA: NAFARROAKO GOBERNUA

**Urtarrilaren 18an lanak bisitatu zituzten Iruñeko eta udaletako ordezkariek.**

Gezurra baldin badirudi ere, Euskal Herriko leku hezeenetako batean ur-hornidura arazoak izaten ziren orain arte. Baina gaur egungo ursarea eta depositoak zaharrak dira eta urteak dira Malerrekako herri hauek soluzioa eskatzen zutela. Iturengo alkateak jakinarazi digunez, *«Ur arazorik handienak Doneztebeen eta gero Iturenen izaten ziren, Zubietan eta Elgorriagan arazorik ez zuten izaten. Gu nahiko juxtuan ibiltzen gara. Udan jende pila bat etortzen da, piszina pila bat badira, hustu-kargatu, hustu-kargatu dabiltzanak... Joan den udan, adibidez, egunero-egunero arratseko 11etan ura itxi eta goizeko 6etan berriz irekitzen genuen. Bertze arazo bat bada, Iturenen kontadorerik ez dela eta orduan ura ausarki ibiltzen da.»*.

Lehenbiziko ikerketak 1988. urtean egin ziren eta hasierako proiektua 1996koa da. Mendaur Plana, Hirurteko Planen barrenean Nafarroan egin gabe zegoen azpiegitura lanik zaharrena zen. Lanek zailtasun handiak dituzte eta hasieran onartutako aurrekontua ez zen erakargarria enpresentzat. Zubietan ere arazoak sortu ziren, Udalean ez baitzuten proiektuaren berririk eta dagoeneko urhartze eta eramate lan batzuk hasiak zirelako.

Azkenean, proiektuak berriz aztertu eta aurrekontua handitu zen, 1.900.000 euroak arte. Ur hartzea Zubietako Txitxillo eta San Anton erreketatik, Aurtizko errekatik eta, ur-hornidura segurtatzeko beharrezkoa denean bakarrik, Ezkurra errekatik eginen da hemendik aitzinera.



**ttipi-ttapa**
HAMABOSTEKARIA

**Lege Gordailua:** NA-1324/85
**ISSN:** 1578-4673
**Frankeo Itundua:** 34/79
**Tirada:** 6.000

**ttipi-ttapa aldizkaria**
Andutzeta, 12
E-31760 ETXALAR (Nafarroa)
Tfnoa: (+34) 948 63 54 58
Faxa: (+34) 948 63 54 57
**www.ttipi.info**
**info@ttipi.net**

**Argitaratzailea:** ttipi-ttapa fundazioa.
**Presidentea:** Pello Apezetxea.
**Kudeatzailea:** Joxemanuel Irigoien.
**Zuzendaria:** Aitor Arotzena.
**Publizitatea:** Kulturkari, SLU.
**Administrazioa:** Amaia Goia.
**Berriemaileak:** Esteban Arotzena, Juana Mari Saizar, Kontxi Klaber, Pello Zestau, Arkaitz Mindegia, Franck Dolosor, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Juan Carlos Mortalena, Laetitia, Sandrine eta Krispin, Angela eta Xamo, Nerea Altzuri, Oskar Txoperena, Joseba Olagarai, Nerea Mitxeltorena, Aitor Arotzena, Amaia Odriozola, Ainhoa Irazoki, Rakel Goñi, Rakel Amigo, Irabxe Kontsumitzaileen Elkartea...
**Imprimategia:** Gertu.
**Erakunde laguntzaileak:** Bera, Leitza, Goizueta, Arano, Areso, Baztan, Urdazubi, Sara, Azkain eta Senpereko udalak, Zugarramurdiko Akelarre elkartea, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

**Harpidetza sariak:**

| | |
|---|---|
| Hego Euskal Herria | 30 € |
| Espainia | 30 € |
| Sara (edantegia-okindegia) | 40 € |
| Ipar Euskal Herria | 50 € |
| Europa | 50 € |
| Amerika | 108 € |
| Baztan, Urdazubi, Malerreka eta Leitza | 25 € |

Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du

Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntza jaso du

# • IRAKURLEAK MINTZO •

## Altsasuko mendi enkantea

Denok dakigu Goizuetako Herriarentzat gure basoek duten garrantzia zein den. Herritarron bizi kalitatea hobetzeko asmoz, Goizuetako Herriko Etxeak duen diru iturri nagusiena basoa eta egur mundua izan baita azken urteetan. Eta eskerrak eman behar gure guraso eta zaharrei, beraien landaketa lanari esker, bai baitugu baso loterik saldu eta aprobetxatzeko. Eta Nafar Gobernuak mendialdeko herri euskaldunak ze nola laguntzen dituen ikusirik, ondorengoek ere zerbait izan dezaten, birlandaketak ezinbestekoditugu. "Goizueta Bizirik" orain eta geroan ere nahi dugulakoz.

Egurraren merkatua ordea oso triste dabil, prezioak lur jota, pinu, pago eta haritzik ezin salduz, eta guzi hau, Ezkerretik beti salatu izan dugun globalizazio-liberalizazioak bultzaturik. Honexegatik, Nafarroa mendialdeko beste 24 herrirekin batera, enkante publiko bateratu bat osatu genuen. Elkarrekin lan eginez, indarrak batuaz, emaitza hobeen esperantzarekin. Guk egurra 10.000 pezeta/m3 saldu nahi izatea ez da aski ordea! Merkatuaren krudeltasunak gauzak bere lekuan jartzen baititu. Beste udal herrietako lote zenbait saldu gabe geratu zirela esatea besterik ez dago.

Eta Udaletik aitortzen dugu, enkantean aurkeztutako hasierako prezioak ez zirela gaurko merkatuari zegozkionak, lehendik ere desierto geratutako enkantetako prezio berberak aurkeztu baikenituen. Beraz, % 20 ko jeitsierakin saltzea, ia normaltzat jo beharko genuke. Baina Esteban adiskidea, ttipi-ttapako Abenduaren 22ko goizuetako kronikan honakoa esatea ahaztu zitzaizun: ia 480.000 € poltsikoratu zituela Goizuetako Herriak. Eta denborak erakutsiko digu, garestitu edo merketu egingo den egurraren merkatua.

Eta ez dezagun ahaztu, herriko etxeek pinu lote bat saltzeko garaian, prozesu legal bat bete behar duela. Enkante publikoen legea alegia. Azkenik esan behar, Etxalarko udalkideekin batera lege hau aldatzeko mozio bat prestatzen ari garela, guzion mesederako izango delako itxaropenarekin.

**Jon Uitzi Lujanbio eta**
**Pedro Mari Salaberria Zubiri**
**Goizuetako Basogintza**
**arloko zinegotziak**

## Hernanira noa

Eta etxebizitzak? izenburua zeraman karta argitaratu zidaten ttipi-ttapan 2004ko azaroan. Galdera udalari zuzentzen nion, jakina. Orduan esaten nuen bezala, 30 urte inguruko goizuetar bat naiz eta "etxebizitza plan" batetan dirua sartzen ari naiz aspaldian. Ez naiz errepikatzen hasiko aurreko kartan erabiltzen nituen argudioak. Nik dakidan gauza bakarra da geroztik beste hamabost hilabete igaro direla eta nere ustez herriko arazo nagusia den honek bere horretan segitzen duela. Badakit lur zoruren bat erosi duela Udalak edo plan urbanistiko berria egiten ari direla, baina nik begi aurrean ez dut deus ikusten, ez inkestarik, ez proiekturik, ez izen emateko deialdirik... Etxebizitza gaiari lehentasuna eman behar zitzaiola adierazten zuen bere programan gaur egun gobernuan dagoen udal taldeak. Eskerrak!

Etxe berriak egiteko terrenoz jabetzeko prozesua luzatzen ari baldin bada, zergatik ez dira beste irtenbideak bilatzen? Udalak baditu bere lurrak herrian bertan (zine zaharra, Barrio Txinoko frontoia) baita etxe zaharrak ere (maisuenak izandakoak, ospitala), baina ez da alde horretatik ere inolako pausorik eman.

Kanpoan lan egiten dudan arren, nik nere herrian bizi nahi nuen. Bikotelaguna kanpotarra dut, baina Goizuetan bizitzeko konbentzitu nuen. Azken bizpahiru urte hauetan saiatu naiz etxe zaharren bat edo lur pusketaren bat erosten, baina dena alperrik. Enpresa pribatuek ere ez dute pisurik eraikitzen eta nere "etxebizitzaren plana" hurrengo apirilean bukatzen zait. Beraz, azkeneko urte hauetan Goizuetako gazte gehienek egin dutena egitera noa ni ere: Hernanira noa bizitzera. Penagarria eta lotsagarria egitan.

**I.I. (Goizueta)**

## Orsa asfalto fabrikaren inguruan Udaletxeak bidalitako idatziari erantzuna

Hasteko gu ez gara anonimoak, nahiz Ttipi-ttapan eta nahiz firmak biltzen beti aurpegia eman dugulako eta firmatzeko ez diogu inori pistolarik buruan jarri. Firma bilketa hori gainera ez da udalaren kontra, Orsak planta hori ez jartzeko baizik, nahiz eta zuek jendeari banatutako idatzi horrekin zuen kontra dela pentsarazi. Bertze aldetik, gezurra zein da? Plenotik pasatu gabe baimena eman zaiola? Alkateak berak onartu du hitzez baimena eman ziola. Herriak deus etzekila? Iskanbila honekin jakin du herriaren gehiengoak. Edo ez dela kutsagarria? Ez dakigu zenbateraino kutsagarria den, baina fuelakin gau eta egun lan egiten duen traste bat etzaigu iduritzen hagitz naturala denik. Gure ustez prentsaurrekoa eta gero «herriarentzat» egindako idatzi horrek (komila artean jartzen dut pertsonalki nere etxera baino lehen ailegatu baitzen Lesaka eta Arantzara ere) gaizki egindako gauza bat tapatzeko konfusioa sortzea zuen helburu. Akusazio pertsonal faltsuak izan direla? Faltsuak edo ez, bi aldeetatik eman dira; gure ustez soluzioa bilera bat egitea da herriaren aintzinena bi ikuspuntuak aztertzeko. Duela lau urte gure herrian horrelako saltsa sortu zuen gai bat ez ahal litzateke herriari jakinarazi behar montatu baino lehen? Argi utzi nahi dugu ez gaudela udalaren eta hau osatzen dutenen kontra, proiektu hau eraman den moduaren kontra baizik. Udalak gauza onak ere egin ditu eta hori ere onartu behar da.

## • IRAKURLEAK MINTZO •

Edozein gauza pasatzen dela ere guk ahal duguna eginen dugu proiektu hori geldiarazteko, ez baitugu hemen behar, nahi dituen diru-benefizio eta lanpostuak ematen baditu ere.

**Xabi Telletxea Etxeberria (Igantzi)**

### Bakoitzari berea...

Ttipi-ttapa aldizkariaren 413. alean, Jon Abrilen adierazpen batzuk irakurri ahal izan ditugu, Jamoteneako aparkalekuan egin asmo diren autobus geltoki eta komunak aipatzen zituen *«aspaldiko ideia genuen eta Nafarroako Gobernuak horrelako ekimenentzat diru laguntzak banatzen dituela aprobetxatu dugu»*.

Geltoki honen ideia, Agerra auzoko geltokiarena bezala, aurreko legegintzaldikoak dira eta Javier Leiza eta Oskar Goñi zinegotziek lan handia egin bazuten ere, ezin izan genituen burutu.

Gure garaian ere, aurreko Udalaren proiektuak kudeatzea egokitu zitzaigun, baina beti argi utzi genuen ez zirela guk abiatutakoak. Adibidez: Ibardingo saihesbidea eta Zia auzoko ur hornidura.

Oraingo Udalari egokitu zaio gure Legegintzaldian abiatutako proiektu batzuk kudeatzea: Kaule auzoa asfaltatzea, Matxaingo ur hornidurako sistema hobetzea, Herriko Etxeko bulego berria (Udaletxe osorako egindako proiektuaren barrenean zegoena). Bestalde, hilerria moldatzeko proiektua baztertu egin zuen, nahiz eta horretarako Nafar Gobernuaren diru laguntza izan.

Uste dut bakoitzari bere ideiak aitortu behar zaizkiola, bere alde onak eta txarrak aipatuz, baina betiere, bertzeenak bere egin gabe.

**Josu Goia Etxeberria**
**Berako alkate proskribatua.**

## • 11 GALDERA LABUR •

**Zein taldetan jo duzu?**
Txakun-ekin hasi nintzen, gero Sustraia, Kukumiku, Eztanda, Alaitz eta Maider eta Tzipotzerokin jo nuen. Orain Patxi Perezekin ari naiz.

**Zer ikasi zinuen lehenbiziko: tratorra gidatzen ala bajoa jotzen?**
8 urterekin tratorrakin jostatzen hasi eta 13rekin ia lan egiten nuen. Bajoa jotzen 19 urterekin hasi nintzen.

**Nola ikusten duzu laborantza gure herri hauetan?**
Gaizki-gaizki. Ttikitzen ari da, eta orain bezala segituz gero ez da hobera ganen, gazteek ez dutelako segitu nahi. Saran eta Senperen gazteak kooperatiba gisan antolatzen hasi dira, eta horrela behar bada...

**Jendeak zerekin dantzatzen du gehiago, rock ala trikiarekin?**
Azken urte hauetan ez bat eta ez bertzearekin, bainan aldi berean harrituta nago adin guztietako jendeak Patxi Perezekin zenbat dantzatzen duten ikustean.

**Zergatik hustu dire plazak herrietako bestetan?**
Ostatuetan musika ona ematen dute, ez du hotzik egiten, gustura egoten da, eta jendeak hori nahi du.

**Herri Urrats: musika jotzen ala bestan?**
Biak egin ditut, eta batzuetan biak batera ere, bainan besta egiteko nahiago dut.

**Urruñako txoko pullitena?**
Itsaso bazterreko komixa, bistak itsaso aldera eta aldi berean mendi aldera baititu.

**Eta Zugarramurdikoa?**
Lezea gaupasa batean ezagutu nuen duela 15 bat urte, eta ez dut sekulan ahantziko. Kisu-laben egotea ere maite dut...

**Mendi itzuli bat egiteko, norat?**
Larunera, Olhetta aldetik.

**Eta besta egiteko?**
Toki ainitzetan ongi pastu dut. Batzutan musikagatik, bertzetan lagunengatik... ez dut toki bat erraten ahal.

**Inauteritarako mozorro bat:**
Andrez jaunztea maite dut. Seroraz, sevillanaz, garbitzailez, tenistaz, putaz, enfermeraz... jauntzi izan naiz. Aurtengoa ez dut oino ongi deliberatua.



**Beñat ZOZAIA**
*Zugarramurdiko musikari urruñarra*

Alberto RETEGI
Altzate, 17 BERA ✆ 948 630 763
abokatua

bortzIRUDI
bortzirudi@telefonica.net
KARTELAK · KAMISETAK · BISERAK · TXOSTENAK · ...
FOTOKOPIA DIGITALAK, KOLORETAN, TXURI-BELTZEAN · PLANOAK
ENKUADERNAZIOAK · PLASTIFIKAZIOAK · PEPERTEGIA · BULEGO MATERIALA
DISEINU GRAFIKOA · LOGOTIPOAK · ERROTULOAK · INPRENTA
Eztegara, 26 · BERA · Tel-Faxa: 948 631 521

Xirail
✆ 948 631 462
Altzate 1 • BERA

SAROBE okindegia
SANDERS pentsuak
Eztegara, 41 · Tel. 948 630 099 · BERA

LEGARRA
BERRIKUNTZA
oposizioak prestatzeko liburuak ekartzen ditugu
Egunero irekia
Tel-Faxa: 948 637 030 · Albistur, 9 · LESAKA

Jose I. Gonzalez Enguita
31780 BERA

BERA
Zure ingurua klase guzietako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarma, kukuxu...) eta arratoi xagutxoz garbitu nahi baduzu, deitu!
Termita eta Pipien tratamenduak
Industria Garbitasun Produktuak
Tel: 948 630 155 (Alkaiaga Industrialdea) LESAKA

EUSKARA

# Bai Euskarari ziurtagiria sustatzeari ekin dio berriz ere Bortzirietako Mankomunitateak

## Abel Bastida eta Eneko Zestau teknikariak kontratatu dira



Utzitako argazkia

**Joan den urtean 124 gizarte eragilek lortu zuten Bai Euskarari ziurtagiria.**

**ttipi-ttapa**

Bortzirietako Euskara Mankomunitateak joan den astean ekin zion berriz ere Bai Euskarari Akordioko ziurtagiriak sustatzeari. Aurten sustapen lana ez da iaz bezain modu sakonean eginen. Izan ere, guztira 60 gizarte eragile bisitatzeko asmoa du; iaz 130etik goiti izan ziren bisitatutakoak. Sustapen lanerako bi teknikari kontratatu ditu Mankomunitateak, Abel Bastida eta Eneko Zestau. Langile horiek urtarrilaren 23an hasi ziren lanean, Cederna-Garalurrek Alkaiagako industrialdean duen egoitzan. Haiei dagokiei hautatutako gizarte eragileei deitzea, eta bai Euskarari Ziurtagiria zer den bertatik bertara azaltzeko hitzordua finkatzea. Euskara normalizatzeko konpromisoak hartzeko prest agertzen diren eragileek beren erakundeari buruzko datu batzuk emanen dituzte, eta, ondoren, Kontseiluari dagokio ziurtagiria ematea.

Sustapen kanpaina akautu bezain laster, 2005ean ziurtagiria eskuratu zuten eragileei ebaluazioa eginen die Kontseiluak. Ebaluazio horren helburua da eragileek euskara normalizatzeko hartu zituzten neurriak bete dituzten ikustea. Horren arabera, konpromiso berriak hartzeko eta ziurtagiria berritzeko aukera izanen dute.

Bai Euskarari Ziurtagiria banatzeko ekitaldia datorren apirilaren 8an, larunbatarekin, eginen da Berako Kultur Etxean. Ekitaldi horretara gonbidatuak egonen dira, batetik, aurten lehen aldiz ziurtagiria lortu duten gizarte eragileak, eta, bertzetik, iaz ziurtagiria lortu eta aurten, ebaluazioa egin ondotik, konpromisoak berritu dituzten eragileak.

Eragile bakoitzari dagokion ziurtagiria emanen zaio, hiru maila ezberdinetako ziurtagiriak baitaude: Bidean, Guk Zerbitzua Euskaraz eta Guk Zerbitzua eta Lana euskaraz.



BERA

# Orain arteko bidean sakondu nahi du Gizarte Gaietarako Batzordeak

## Guraso Eskolak eta oroimena lantzeko tailerra arrakastatsuak izan dira

**Amaia eta Ainhoa**

Orain arteko bidean sakontzea eta bide hori sendotzea izanen da Udaleko Gizarte Gaietarako Batzordearen erronka 2006rako. Helduen heziketa ardatz hartuta, makina bat tailer, ikastaro, formakuntza, aholkularitza zerbitzu eta proiektu paratuko dira abian.

2004ko urtarrilean ekin zion Gizarte Gaietako Batzordeak lan honi. Ordura arte herrian landu gabeko eremu berri bat zabaldu zen, eta lan honetan guraso elkarteak izan ditu, bereziki, bidelagun.

Guraso Eskola martxan paratzeko indarra egin zen lehenbizi. Arrakasta neurrigabea izan da: bi talde osatu ziren lehenbiziko ikasturtean, 2004-2005ean, eta bertze bi osatu dira 2005-2006 ikasturte honetan. 30na guraso aritu dira ikasturte bakoitzean sei saioko bi txandatan. Aurtengo ikasturteko bigarren txanda ere laster hasiko da, eta matrikula zabalik dago. Bidari elkarteko Blas Campos pedagogoaren gidaritzapean joan dira bi ikasturte hauetako guraso eskolak.



Utzitako argazkia

**Guraso Eskolan emakumeak izan dira partehartzaile gehienak. Gizarte Gaietarako Batzordearen ustez, «hor bada non eragin eta non lan egin».**

Nafarroan hainbat herritan gisako esperientziak egon arren, Blas Camposek berak ere nabarmendu du lehenbiziko esperientzia dela hiru ikastetxetako guraso elkarteak eta Udala elkarlanean aritu izana proiektuaren diseinuan eta garapenean, eta *"nabarmentzeko modukoa"* izan da hau bere irudikotz.

Parte hartzeari dagokionez, emakumeak izan dira jaun eta jabe: lehenbiziko ikasturtean parte hartzaile guztiak izan ziren emakumeak, eta bigarren ikasturtean, bi gizon ez bertze, gainerako guztiak emakumeak izan dira. Hor bada non eragin, eta non lan egin Batzordearen ustez.

65 urtetik goitikoentzat ere "Oroimena lantzeko tailerra" antolatu dute ikasturte honetan. Otsailera arte arituko dira. Tailerrak harrera ezin hobea izan du, 37 pertsonak eman baitute izena, Amaia Pandoren gidaritzapean.

Guraso Eskolako esperientzia aberasgarritik abiatuta, eta bereziki partaideen interes eta gogoa agerian gelditu denez, Gizarte Gaietarako Batzordetik abiatutako lanari segida eman nahi izan diote, eta udaberri honetarako eskaintza zabala prestatu dute. Eskaintza honetan Guraso Eskolan landu diren zenbait gaietan sakontzea bilatzen da, eta Guraso Eskolan gurasoek agertutako kezka, desio eta jakinmin horietan sakontzea.

FLASH

### Antzerkia eta Giñola Kultur Etxean

Antzerki eta txotxongiloen mundua atsegin duenak bi hitzordu izanen ditu otsailean Kultur Etxean. Igande honetan, otsailaren 5ean, Polichinelle konpainiak «Giñolen abenturak» giñol antzerkia eskainiko du 17:00etan Kultur Etxean. Otsailaren 11n, larunbatarekin, Pol Produkzioak taldeak «Ongi ibili» antzezlanak eskainiko du 22:00etan Kultur Etxean. Berako Euskara Batzordeak antolatu du antzerki emanaldi hau.

### Guraso Eskola

Hirugarren urtez, Blas Camposen eskutik Guraso Eskola antolatu da. Astelehenetan, otsailaren 6, 13 eta 20an eta martxoaren 6, 13 eta 20an emanen da, goiz eta arratsaldeko saioetan. Matrikula 50 euro ordaindu behar da eta izen ematea 012 telefonoan edo Kultur Etxean egiten ahal da.

### Garapen ereduari buruzko zikloa

Asteotan eginen den garapen ereduari buruzko zikloaren barnean, «Itoitz: urte luze bat lurrikarak jasaten» solasaldia eskainiko du Patxi Gorraizek, Itoitz koordinakundeko kideak. Gazteleraz emanen den hitzaldia 20:30etan hasiko da Liburutegian. Espidobaita elkarteak antolatu du ekitaldia.




Javier Manterola
Tkhariko instalatzailea
iturgintza • gasa • kalefakzioa
✆ 629 449682
Iturlandeta 4, behea • BERA




arropak · maindireak
mantak · nordikoak
toallak · kortinak
alfonbrak
Goya
Bera

## LESAKA

# Adinekoek oroimena lantzeko programa gauzatu nahi du Udalak

### Izen ematea otsailaren 21a baino lehen egin behar da

Aitor AROTZENA

Lesakan edo inguruan bizi diren 60 urtetik goitiko eta inolako eritasun mentalik ez duten pertsonei zuzendua oroimena lantzeko programa landu nahi da martxoaren 1etik aitzinera. Horretarako izen ematea 012 telefonoan edo jubilatun elkartean egin behar da otsailaren 22a baino lehen. Partehartzaileei 10 euro kobratuko zaizkie.

Oroimenaren funtzionamendua eta hau hobetzeko teknika ezbedinak ikasi nahi dituzten adineko pertsonei zuzendua dagoen eta osasunaren promozioa eta prebentzioaren barnean programa da hau. Jakina da, adinarekin gaitasun kognitibo ugari gutxitzen direla, eta kexa gehienak oroimenaren inguruan ematen direla. Oroimena, arrazoi ezberdinengatik gal daiteke, baina orokorrean Adinarekin Erlazionatutako Oroimen Galera da gehien ematen dena, hau da oroimen galera normala. Aldi berean, ikerketak argi utzi dute gaitasun hauek hobetu daitezkeela, gorputzarekin gertatzen den bezalatsu. Horregatik, beraien bizitzan intelektualki aktibo mantendu diren pertsonak gaitasun hauek mantentzeko aukera gehiago dituzte. Programa honekin, beraz, garunarentzako gimnasia baten antzekoa landuko da.

Sei eta hamabi lagun arteko lan taldeak erabili nahi dira, talde dinamika mekanismoak sortzen direlako, komunikazioa hobetuz, autoestima handituz, antsietatea gutxituz... Amaia Pando Aramendi psikologoa, gerontologian espezializatua eta suspertzaile soziokulturala izanen da taldeekin lan eginen duen aditua. Ekintzak, astean behin eginen dira ordu terdiko saioetan, asteazkenetan 17:30etatik 19:00etara. Martxoaren hasieratik maiatzaren bukaera arte landu nahi da programa hau Lesakan.



ARGAZKIA: AITOR

### Zaine Rekondori ongietorri beroa eskaini zitzaion

**Urtarrilaren 15ean ongietorri beroa egin zitzaion Zaine Rekondori. Bederatzi hilabete Alcala Mecoko espetxean egin ondotik, abenduan baldintzapeko askatasunean utzi zuten. Herrian egindako ekitaldian hainbat une hunkigarri izan ziren: Kotto Altzugurenen arrebari eskainitako lore-xorta, Iñaki Fagoaga presoaren ahotsa zuzenean telefonoz aditu ahal izatea, bertsoak, dantzariak eta hamabortz haurrek kantatu zioten «Geurea da Euskal Herria» abestia. Ekitaldiaren ondotik, «Status politikoa orain: euskal preso eta iheslari politikoak herrira» lemapean manifestazioa egin zen eta gero, 180 bat lagun bildu ziren Koxkontan bazkaltzera.**

## FLASH

### *Igerileku estaliaren lanak*

Construcciones Ecay, SL, Union de Montadores Electricos de Navarra SL eta Soniclima Industrial SL enpresek aldi baterako osatu duten elkarteak eginen ditu udal igerilekua estaltzeko lanak 3.377.660,30 euroren truke. Guzira bortz proposamen aurkeztu ziren Herriko Etxean eta horietako batek hasierako aurrekontua gainditzen zuenez, gibelera bota zen. Bertze lauen artean, arestian aipatutakoa aukeratu du Udalak. Hasierako prezioa %3,30ean jautsi du enpresen elkarteak. Lanak berehala hastekoak dira eta uda honetan igerilekuak itxiak egon beharko dute. Halere, Udala arazo hori moldatzeko lanean ari da.

### *Kultur Batzordearen egutegia*

Udaleko Kultur Batzordeak, herritarren partehartzea bulkatu nahizik, ekitaldiak prestatzeko eta antolatzeko eginen dituen bileren egitaraua jakinarazi du. Lehen bilera ilbeltzaren 26an egin zen, iñauteriak prestatzeko. Otsailaren 23an, Erdi Aroko Azoka antolatzeko bilera eginen da eta martxoaren 23an lehen hiruhilabetearen balorazioa eginen da. Hurrengo hiru bilerak Sanferminen egitaraua zehazteko eginen dira, maiatzaren 4 eta 18an eta ekainaren 15ean.









ETXALAR

# Bi txapeldun eta azpitxapelduna Bortzirietako eskuz banakakoan

Jon Iparragirre eta Xabier Gallardonek txapela herrian utzi zuten



ARGAZKIA: NEREA MITXELTORENA

**Larraburua elkarteko mus eta partxis txapelketetan azken partidetara ailegatu ziren bikoteak, tartean txapeldunak eta txapeldunordeak direla.**

**Joseba eta Nerea**

Udazken partean jokatu zen Bortzirietako binakako Pilota Txapelketan herriko ordezkariak izan genituen. Jokatu berri den banakako Pilota Txapelketan ere ordezkariak izan ditugu. Urtarrilaren 21ean jokatu ziren Txapelketa honetako finalak herriko frontoian eta herriko ordezkariak ederki aritu ziren. Egun hau hasi zutenak Ttikiak B mailakoak izan ziren eta maila honetan Urtzelaiko Jon Iparragirrek Lesakako Pello Telletxearen kontra irabazi zuen, 18-9ko emaitzarekin. Etxalarko bertze ordezkariak Kimuak B mailan aritu ziren. Bertan Izargiko Aitor Danboriena Antsoneko Bordako Xabierren arteko buruz burukoa ikusteko aukera izan genuen. Nahiz eta Aitorrek binakako txapelketan txapela eskuratu zuen, banakakoan Xabier Gallardon gailendu zitzaion 10-18ko emaitzarekin. Zorionak hiruroi eta eman gogor pilotari.

### *Larraburuako mus eta partxis txapelketa*

Azaroan hasi zen Larraburrua Elkarteko Mus eta Partxis Txapelketaren sari banaketa errege egunean egin zen. Bi hilabetez luzatu da txapelketa hau, eta norgehiagoka gogorrak izan badira ere hauek dira txapela eskuratu dutenak. Museko XIV. edizio honen irabazleak, Teodoro Iribarren eta Santiago Mitxeltorena. Bigarren postuari eutsi diotenak Jose Luis Arretxea eta Lorenzo Ibarra izan dira. Hirugarrenak, aldiz, Periko Telletxea eta Jabier Indaburu. Eta azkenik, baina ez horregatik merezimendu gutiagorekin Jesus Antsalas eta Leoncio Arburua. Baina Larraburua Elkartean ez dute gizonek jokoan aritzeko aukera bakarra. Nahiz eta musean parte hartzeko emakumerik ez animatu, partxisean aski gustura ibiltzen dira. Horren seinale da Partxis Txapelketaren XIII. edizioa. Aurten hauek izan dira gailendu diren bikoteak: Lehengo postua erdietsi dutenak Encarna Iparragirre eta Mª Cruz Andueza izan dira. Bigarren postuan Birjinia Arburua eta Asun Elizalde izan dira, eta hauek gainera ez dute sailkapeneko lehen postuetan gelditzen diren lehenengo aldia. Eta hirugarrenak Milagros Santesteban eta Maritxu Zubieta, hauek ere goi horretan egotea aski ongi dakite. Txapelketa honi amaiera emateko urtarrilaren 15ean otordu bat egin zuten txapelketan parte hartu zuten guztiekin. Baina ez da honekin negu honetako mus eta partxis txapelketa, dagoeneko ari baitira Magra Sariketarako lehiatzen. Zorte on guztioi.



ARGAZKIA: NEREA MITXELTORENA

**Aitor Danboriena, Jon Iparragirre eta Xabier Gallardon herrian jokatutako finaletan aritu ziren.**

USOA
nekazari kooperatiba
ganaduarentzat pentsurik egokiena
Tel: 948 635 214 - ETXALAR

XATURETXEA
JATETXEA
948 637 027 · LESAKA

PRIM, c.b.
Bizkortze Zentroa
• Kirol Fisioterapia
• Osteopatia
• Masaiak
• Trafiko istripuetan aholkularitza
• Istripu eta osasun aseguruak
Itzea 1, behea • Tel-Fax: 948 625206 • BERA
Colon Pas. 6 - atzea • Tel-Fax: 943 633050 • IRUN

Ginko
M. Karmele Tolosa
udako loreak eren hazitegian
31760 Etxalar (Nafarroa)
Telefonoak:
617 350 025 - 667 694 067

ARANTZA

# Ekaitza elkarteak otsailaren 4an, larunbatean, eginen du urteko batzarra

## Mozorro gazte eta gaztetxoen taldeek mozorraldiko protagonismoa hartuko dute iñautetan

**Nerea ALTZURI**

Larunbat ilunabarrean, otsailaren 4an, Ekaitza elkarteko bazkideek urteko batzarra eginen dute egoitzan 20:30etan. Bilkuran hainbat puntu jorratuko dira eta tartean, bi Urtero behin aldatzen den junta berritzea eginen da.

Gainerakoan, bileran azken bi urteetako kontuen onespena; aurtendo urteko kuotaren berri ematea; Errontako (elkarteko egoitza) lehendabiziko solairuan aurrekusten den obra; eta pilotaren gaia mamituko dira.

Bilera hau garrantzitsua dela eta, bertaratzeko deia egiten zaie bazkideei.

Gaur-gaur, laurogeita bat bazkide ditu Ekaitza elkarteak, azken urteko bazkide berriak ere batuta. Behin baino gehiagotan, herriko kronikan jakinarazten dugun moduan, herriko ekitaldietan parte hartzen du Ekaitzak, antolatzaile nola laguntzaile: iñauterietan, bestatan, pilotako esparruan, mendi itzulia antolatzen, baserritarren eguneko antolaketan, kultur egunetan... Gogoratuko duzuenez, iaz elkartearen hogeita bortzgarren urtemugako ospakizuna egin zen.



Artxiboa

**Mozorro zuriek iñauteetako egitarau zabala prestatu dute. Aurten, eskolako ikasleek ere eginen dute auzoz auzoko puska biltzea.**

### *Iñauteriak otsailaren 9tik 11ra eginen dira*

Aitzineko alean aipatu bezala, iñauteriak otsailaren 9, 10 eta 11n izanen dira.

Ohitura den moduan mozorro zuri helduek prestaturiko egitaraua gozagai izanen da egun horietan. Etxez-etxeko, auzoz-auzoko puxka biltzea ordea, helduek ez ezik eskolako ikasleek eginen dute egun horietan.

Gainerakoan, egunero bazkal-afal otorduak (tartean, emakumeen afaria) ostatu eta jatetxeetan txandaka egiten dituzte mozorroek. Musika taldeek ere gorapean alaitasuna jarriko dute ilunabarretik aitzinera ortziralean eta larunbatean. Larunbat arratsaldean, haurtxo mozorrotuen kalejira izanen da eta mezaren ondotik, herri kirol saioa frontoian. Honako hau sorpresa izanen da.

Hori bai, urteroko ohiturari segituz zozketa eginen da bertan. Ondotik, bertso afaria Jon Maia eta Jexux Mari Irazurekin antolatu dute. Norberak jakinen du hortik aitzinera zenbat luzatuko duen bestaren gaua. Kontuak-kontu, guzira hamasei gazte antolaketa lanetan ari dira eta azkeneko xehetasunak lotzeke baldin badituzte ere, egitarauak iaztik ez du aldaketa haundirik izanen. Osagaiak beretsuak dira lehentxeago irakurri ahal izan duzuen moduan eta horiekin bakoitzak bere gustuko xaltsa prestatuko du.









IGANTZI

# Gutti falta da Gaztainbakarreko errotonda akautzeko

## Bortz zapel irabazi dituzte herriko pilotariek Banakako Txapelketan

Oskar TXOPERENA

Urrian hasitako Gaztainbakarreko kruzeroko lanetan azken ukituak ematen ari dira Construcciones Mariezkurrena enpresaren langileak. Hiru eskollera egin behar izan dituzte Arantza eta Igantzira doazen bideei lekua egiteko. Hortaz gain, kuneta berriak egin dituzte Sarrola Auzotik hasita eta argindarra eraman dute herritik errotonda berria argitzeko. Itxura ikusten zaio dagoeneko lanei eta inguru horretan egunero harat-honatean ibili behar duenak alde haundia sumatu behar duela ematen du. Lantegiaren arduradunen erranetan, hilabete baten barrenean akautu beharko lituzkete lanak.



ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

**Ikusten den bezala, infantiletakoak izan ezik, bertze maila guzietako zapelak ekarri zituzten herriko pilotariek Etxalartik.**

### *Pilotariak bikain buruz burukoan*

Emaitza ederra lortu dute herriko pilotariek Bortzirietako Banakako V. Txapelketan. Hamar zapel zeuden jokoan ilbeltzaren 21ean Etxalarren jokatutako finaletan eta horietako bortzetan genituen pilotari igantziarrak. Inor guttik espero zuena lortu zuten: euren partida guziak irabazi zituzten. Oihan Canabal, Unai Telletxea, Adur Yanci, Beñat Txoperena eta Imanol Goienetxek hagitz maila ederreko finalak jokatu zituzten. Euren alde erran behar da gainera, Beñat Txoperenak izan ezik –lehenbiziko urteko kadeteetako finala jokatu zuen eta–, bakoitzak bere kategoriko A mailako finalak jokatu zituztela. Final aunitzetara iritsi baina gutti irabazteko fama hartzen hasiak ziren gure pilotariak, baina oraingoan, zortea lagun, egun ezin borobilagoa atera zitzaien. Kanpora begira jarriko zaizkigu orain. Izan ere, badira batzuk dagoeneko hasiak direnak fama haundia duen Zizurko Txapelketa jokatzen eta Belate Elkarteak antolatzen duen txapelketa ere hasteko zorian dago. Geroxeago etorriko dira Doneztebekoa, Herriartekoa, Barañaingoa, etabar...



**Ehun lagun inguru biltzea espero da.**

# Zuhaitz landaketa eginen da Ziobin otsailaren 2an

O.T.

Otsailean egin izan da urte gehienetan Eskola eta Herriko Etxearen artean antolatzen den zuhaitz landaketa. Iaz otsailaren 10ean egin zen eta aurten otsailaren 2rako dute lehenbiziko hitzordua. Lehenbizikoa diogu eguraldiaren laguntzarik gabe bertze baterako utzi beharko litzatekeelako. Azken bizpahiru urtetan bezalaxe, Ziobin eginen da landaketa. Segur aski guraso gehien biltzen duen ekitaldia izanik, 100 lagunetik goiti bilduko dira Frain mendiko magalean prestatutako 100 zuhaitzak landatzera.

Bertzalde, gaiarekin jarraituz, auzolana deitu du Udalak Frainera doaien errepide bazterretan zuhaitz-landareak paratzeko. Otsailaren 11n eginen da auzolana eta joan nahi duenak goizeko 9etarako ur deposito zaharrera hurbiltzeko deia egin da.

PiKABEA
haratégia • urdaitegia
janari prestatuak
Aakain, 7 BERA • Tfnoa: 948 631 284

MEDIKUNTZA NATURALA
NATUROPATIA
ONDORIOETATIK INDARTZEKO:
Diabetia • Asma • Zizareak • Larru azaleko alergia
Buruko mina • Oinen izerdia • Prostata, etab...
IKUSMENAREN BERRESKURATZEA
• Miopia
• Bista alfertua
• Estrabismoa
• Begi lausoak-kataratak
GIHARRE ARAZOAK
• Bixkortzea
• Artritis, erreuma
• Artrosia, Lunbalgia
• Bihurdurak, etab
KONTSULTA ORDUTEGIA
Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu
✆ 943 62 30 55 San Marcial, 7-4 IRUN

BORTZIRIAK

# Silveira anaiek eta Oskar Goñik irabazi zuten taldekako 8. Bertso lehiaketa

## Hogeita lau bertsolari aritu ziren, zortzi hirukotetan banatuak

ttipi-ttapa

Lesakako Xabier eta Jon Silveira anaiek eta Oskar Goñi beratarrak osatutako hirukoteak irabazi zuen Bortzirietako taldekako zortzigarren bertso txapelketa. Linddurrenborda sagardotegian urtarrilaren 14an egin zen finalean, Juan Mari Lopez, Erika Lagoma eta Ioar Tainta lesakarrak izan zituzten parez pare.

Guzira 24 hirukotek hartu dute parte aurtengoan txapelketan. Finalera ailegatutakoekin batera, Jon Barberena, Iñaki Aleman eta Josetxo Etxenike; Bittor Elizagoien, Jon Elizetxe eta Iker Gorosterrazu; Julen Zelaieta, Beñat Taberna eta Garazi Taberna; Estitxu Arotzena, Alazne Untxalo eta Maialen Belarra; Manolo Arotzena, Xabier Terreros eta Imanol Lopez; eta Joxe Juan Zubieta «Etxabe», Estitxu Fernandez eta Egoitz Telletxea. Hainbat bertsolari izanik, aurtengoan ere bertso maratoia antolatu zuen Bortzirietako bertso eskolak. Urtarrilaren 13an, ortziralean, bi saio egin ziren berako Espidobaita elkartean egindako afal ondoan. Biharamonean, Lesakako Kattun egindako bazkalondoan saio bat egin zen eta Haizego ostatuan bertzea. Finalerdiak Lesakako Zarren eta Atxaspin egin ziren eta Linddurrenbordako afal ondoan finala.

Saio guzietan giro bikaina izan zen, baina aipatzekoa da finalean izandakoa. Aurten, lehen aldiz, bertso hoberena bota duen bertsolariari Kotto Saria eman zitzaion eta Xabier Silveirak eskuratu zuen. Itziar Elorzak eman zion, Espidobaita elkartearen izenean. Imanol Larrañaga, elkarte honetako lehendakariaren eskutitza ere irakurri zen.



UTZITAKO ARGAZKIA

**Txapelketan parte hartu duten bertsolari, epaile, gai-jartzaile, musikari eta bertsozaleak Linddurrenbordako finalaren ondotik.**

BEKO
Lore eta landareak
Frain auzoa - LESAKA
Tfnoa: 948 637826

ZUBIONDO JATETXEA
Alasta karrika
BERA NAFARROA
TLF 948 625 472
sagardotegia jatetxea sagardotegia

BEINTZAko OSTATUA
948 450 014
BEINTZA-LABAIEN

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA
CAFÉ DE ...
MAIXAN ETA VÉRONIQUE
SARA • TEL. 0559542519

ZJ
Zalain jatetxea
Hostala
14 logela, bainu eta TBrekin
Bera - Nafarroa

PAGOLA
EMBUTIDOS
artesanos desde 1940
Altzateko Plaza, 2 • BERA • Tel. 948 630 054

EDARIAK
MANUEL TABERNA S.L.
Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

SUNBILLA

# Urteko ateraldien egitaraua prest dauka Ulibeltzak mendi taldeak

Otsailaren 12an Atxuria mendira aterako dira Etxalartik

Jaione O. A.

Ulibeltzak mendi taldeak eginen duen hurrengo ateraldia otsailaren 12an izanen da Etxalartik Atxuria mendira. Irteera ordua goizeko 8etan izanen da eta 758 metro altuerako mendira irteera polita eta prestakuntza arruntarekin egiteko aukera izanen da.

### *Formigalera*

Gogoratu otsailaren 18an Formigalera eskiatzera joateko interesa duenak, otsailaren 10a baino lehen eman beharko duela izena.

### *Oharra*

Berri hauek inauteriak baino lehenago emanak baitira, hurrengo alean emanen dizuegu iñauterien berri.



ARGAZKIA JOSETXO APEZTEGIA

### *Hamar basurde asteburu berean*

**Eskualde guztian bezala, Sunbillan ere basurde ehizarako afizio haundia dago. Ortzegun, larunbat eta igandetan ehiza egitea libre bada ere, larunbat eta igandetan biltzen da jende gehien, asteburua aprobetxatuz. Horrela bada, argazki honetan ageri den bezala, joan den urtarrilaren 8an, Sunbillako ehiztariek suerteko goiza izan zuten, zortzi basurde hiltzea lortu baitzuten eta aurreko egunean beste bi.**

MALERREKA

# Doneztebeko bulegoa lekuz aldatu du Cedernak

ttipi-ttapa

Cederna-Garalur elkarteak Donezteben duen bulegoa lekuz aldatu du. Urtarrilaren 23tik aitzinera, Arantxa Arregi Cederna-Garalur elkarteko garapen eragileak, Juansenean ordez, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak Donezteben duen bulegoan (Leitzarako errepidea z/g, 31740 Doneztebe) eginen du arreta astelehenetan. Komeni da aitzinetik hitzordua eskatzea. Horretarako deitu 606 431357 telefono zenbakira. Asteko gainerako egunetan orain arteko leku berean emanen du zerbitzua Arantxa Arregik, alegia, Cederna-Garalur Elkarteak Alkaiaga industrialdean duen zentroan.



MALERREKA-KIROLA

# Erreka pilota elkarteko laugarren txapelketa otsailaren 8an hasiko da

## Pilota taldea lehen mailan arituko da heldu den denboraldian

ttipi-ttapa

Erreka pilota elkarteak laugarren aldiz antolatutako pilota txapelketa otsailaren 8an abiatuko da. Bertze urteetan bezala, benjamin, alebin, infantil, kadete, jubenil eta elite mailakoak arituko dira txapelketan. Elkartetik jakinarazi dutenez, aurten indar berezia eman nahi izan diote elite mailako txapelketa honi eta afizionatu mailan ari diren pilotari hoberexkoenak arituko dira. Partidak asteazkenero jokatuko dira Doneztebe eta Sunbillan.



ARGAZKIA: ZALDUA

**Hainbat sari eta zapel banatuko dira aurten ere Errekaren pilota txapelketan. Elite mailako txapelketa bereziki indartuko da.**

### Erreka lehen mailan arituko da

Erreka pilota elkarteak lehenbiziko aldiz parte hartu du Nafarroako txapelketan, bigarren mailan. Txapelketa honetan, buruz buru eta binaka aritzeko taldea aurkeztu behar izaten da eta Doneztebeko pilota elkarteak bi aurkeztu zituen: A taldean Iñaki Etxegarai beratarra aritu zen buruz buru eta Almandozko Xabier Altzugarai eta Iberoko Iban Azanza binaka. B taldean, berriz, Antton Aranburu oiartzuarra aritu zen banaka eta Iker Tainta lesakarra eta Iruritako Xanti Arraztoa binaka.

Txapelketa bikaina egin zuten bi taldeek eta finalerdietan sailkatzea lortu zuten. Erreka A taldeak galdu egin zuen Larraunen kontra, baina Erreka B taldeak finalean sartzea lortu zuen, finalerdian Burlatari irabazi ondotik. Aipatzekoa da buruz buruko lehian Antton Aranburuk bi partidak, etxean jokatutakoa eta kanpokoa, irabazi zizkiola Burlatarekin ari den Unai Arraztoa iruritarrari. Finala abenduaren hondarrean jokatu zuen Erraka Bk Larraunen kontra. Banaka, Antton Aranburuk 18-9 irabazi zion Perez larraundarrari. Binaka, aldiz, taintaren ordez aritu zen Mikel Eskudero goizuetarrak eta Xanti Arraztoak galdu egin zuten Azpiroz eta Zabalo bikotearen kontra. Halere, finala jokatzearekin, heldu den denboraldian lehen mailan aritzeko eskubidea lortu du Errekako taldeak.

## Areto-futbol kopako finalerdiak eta finala igandean

ttipi-ttapa

Igande honetan, otsailaren 5ean, jokatuko dira Doneztebeko kiroldegian Baztan-Bidasoako areto-futbol kopako finalerdia eta finala. 16:00etan lehenbiziko finalerdia jokatuko dute Iruritak eta Aise taldeak. Baztango bi taldeak bikain ibili ziren ligan ere eta lehen mailako bigarren eta hirugarren izan ziren. Beraz, pronostiko garbirik gabeko partida izanen da. 17:00etan, Doneztebeko Titi Ostatuak eta Elizondoko Goizalde ostatua izanen du arerio. Titik talde gaztea dauka, baina liga polita egin dute. Laugarren postuan sailkatu dira. Goizalde, aldiz, azkenekoa izan da lehen mailan eta kategoria galdu du. Kopa hasi arte ez zuen partidarik irabazi, baina Sunbillako Mendi Txuri eta Arraioz kanporatu ditu kopan. Finalerdien ondotik finala jokatuko da.

Baztan-Bidasoako sagardotegiak
LARRALDEA eta
LINDDURRENBORDA
Txotx denboraldia irekia
Eskualdean egindako sagardoa
LARRALDEA
Telleria auzoa • LEKAROZ
948 452121 • 626 494317
LINDDURRENBORDA
Nabaz auzoa • LESAKA
948 637212




TOLDOS BAZTAN S.L.
TOLDOAK salmenta-konponketa-alokairua-errotulazioa
MOSKITERAK-PERTSIANAK motorizatuak
venecianak-PVCzko LEIHO eta ITXITURAK
Tel-Fax: 948 631 003 - Bidasoa, 66 behea - BERA



DONEZTEBE

# Karrika Nagusiko zutabeekin gorabehera larriak izan dira

Jarri eta biharamonean ipurditik ateriak agertu ziren batzuk

**ttipi-ttapa**

Udalak zutabe ttiki batzuk jarri zituen urtarrilaren 18an Karrika Nagusiko bide bazterretan, bertan ibilgailuak ez aparkatzeko. Karrikaren estuasuna dela eta, ibilgailuren bat aparkatua utziz gero zailtasunak izaten zituzten bertzeek karrika horretatik pasatzeko. Zutabeak paratutako egunean ikuspegi ez ohikoa agertzen zuen karrika horrek, ez baitzen autorik ikusten espaloi gainean. Baina ohiturak aldatzea zaila izaten da. Kontuan hartu behar da karrika horretan hainbat denda eta komertzio daudela eta aunitzek, erosketak egiterakoan, dendaren ateraino kotxea hurbiltzeko ohitura izaten dute. Udalaren erabakiak aldeko eta kontrako iritziak hartu ditu. Horren erakusgarri, biharamonean zutabe horietako batzuk ipurditik ateriak agertu zirela eta Udalak, ibilgailuentzat karrika itxi zuen moldaketa lanak egin eta zutabeak berriz jarri ahal izateko. Merkatariak haserre agertu ziren Udaletxean urtarrilaren 24an eta soluzioak eskatu zituzten. Alkateak karrikaratu duen bando batean ageri denez, herriguneko zirkulazioaren antolaketarekin komertzioetara sarbide errazagoa eta azkarragoa lortu nahi da. Horretarako, merkatariei beraien auto partikularrak karriketatik kentzea eskatu du eta aldi baterako aparkalekua eskaintzen du Santa Luzia Plazan, Parrokia karrikan eta autobusen errotonda ondoko aparkalekuan. Autoendako galtzada eta oinezkoendako espaloia libratu nahi dira eta karga eta deskargarako eremuak ere egokituko direla jakinarazi du alkateak. Animoak bero daude eta komertzianteekin biltzekoa da Udala.




ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

**Karrika Nagusian espaloia eta galtzada bereziz jarri diren zutabeek zer erran handia sortu dute egun hauetan. Komertzianteak arras kexu daude eta soluzioak bilatzeko bilera egitea eskatu diote Udalari.**

PERTSONAIA

Jokin APEZETXEA

## Gazte Burrunba Taldeko presidente berria

Urtarrilaren 20an egin zen batzarraz geroztik, Gazte Burrunba taldeko presidente berria da Jokin Apezetxea Azkarate. 141 bazkideetatik 56 izan ziren batzarrean eta bi urterako kargua Jokinek hartzea erabaki zuten. Maider Irazoki izanen da presidente ordea, Liborio Ariztia idazkaria eta Asun Ezkurra diruzaina. *«Orain arte egindako lanarekin segitu nahi dugu* –erran digu Jokinek– *ongi atera diren ekitaldiak errepikatu eta gaizki atera direnak hobetuz».* Koadrila ezberdinen arteko harremana sendotu eta euskara bultzatzea ere Gazte Burrunba taldearen helburu nagusiak direla azpimarratu du.

Pitti
eskabazioak
Tel: 616 513 491

Mendaxlea etxeta, 34 ZUBIETA

APARAN, S.A.
BRIKOLAIA eta ZURAK
· Melamina taulak
· Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
· Txapaz estalitako taulak
· Entzimerak
· Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
· Pintura eta bernizak
· Bainurako mobleak eta osagarriak
· KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

Tel: 948 456 080
Fax: 948 450 334
DONEZTEBE

Iturria
HIDROEREINTZA
HIDROSIEMBRA
FERMIN MARITORENA LARRALDEA

LANA

# Langile baten kaleratzea salatu du Zalaingo Enpresa Batzordeak

## Otsailaren 8an lau orduko lan uzteak eginen dira bi txandatan

**ttipi-ttapa**

Condesa enpresak Zalainen daukan lantegiko zuzendaritzak eta enpresa batzordeak urtarrilaren 26an Nafarroako Gobernuko Lan Departamentuan izan zuten adiskidetzeko ekitaldiak ez zuen emaitzarik izan eta langileek mobilizazioekin segituko dute.



ARTXIBOKOA
**Otsailaren 8an, goiz eta arratsaldeko txandetan launa orduko lan uzteak egiteko deialdia egin du Enpresa Batzordeak.**

Urtarrilaren 12an, enpresak emakume langile bat kanporatu zuen eta hau *«enpresaren 30 urteotan aurrekaririk gabeko gertakaria»* dela jakinarazi du Enpresa Batzordeak. Honen larritasuna dela eta, *«erantzun egokia eman beharda, etorkizunean honelako neurririk errepikatu ez daitezen»*. Oraingoz, enpresak kaleratzearekin bere horretan segitzen duenez, bide judizialarekin segituko dute langileen ordezkariek. Gainera, otsailaren 8an, goiz eta arratsaldeko txandetan launa orduko lanuztea egiteko deialdia egin dute eta greba legala bezala tramitatuko dute. Mobilizazio hauen alde agertu dira Enpresa Batzordeko 13 kideetatik 9. UGT abstenitu egin zen eta Confederacion de Cuadros-eko ordezkariak ezin izan zuen bozketan parte hartu.

### Plan Estrategikoa

2005eko maiatzean sinatu zen Plan Estrategikoan 34 langile soberan zeudela eta kontratuak etetea proposatzen baldin bazen ere, azkenean zerbitzu arloan mugagabeko kontratua zuten 23 langile produkzioan eta guarda postuetan kokatzea adostu zen. Enpresa Batzordearen helburua *«despidorik ez izatea»* zen, baina orain *«Zalaingo zuzendaritza berriak bere aldetik ez du akordioa betetzen eta negoziazio bidea apurtzen du»*. Bulegoetan ari ziren emakumeak produkzioan kokatzea *«kudeaketa zaileko gaia»* izan dela badaki Enpresa Batzordeak, *«baina lanpostu alternatiboen eskaintza ez da bete eta kaleratzearen bidea aukeratu du enpresak, inolako arrazoirik gabe»*.

ARANO


ARGAZKIA: KONTXI
**Abenduaren 28 eta 29ko elurrak garbitu ziren kuña berriarekin.**

# Elurra kentzeko makina berria abenduan estreinatu zen

**Kontxi KLABER**

Abenduaren 28 eta 29an botatako elurrak kentzen estreinatu da Aranon Nafarroako Gobernuak dohainik emandako kuña berria. Kuñaz aparte gatza botatzeko makina erosi du udalak patrolari erainsteko, 4000 euroko kostea izan du, baina modu honetan auzoetako bideak garbitzeko aukera izango da.

ERROTAZAR
haragitegia
Bertako produktuak
Eztegara, 3
Tel: 948 630 088
BERA

UNE-EN-ISO 9001
IAC
SCC-02-0199
udana salazones
Inportaziozko leben kalitateko bakailu gazitua
Bakailu gezatua eta kongelatua, erabiltzeko prest
Alkaiaga ind. • Banarta, 8 - 23. pabiloia • LESAKA • Tel. 948 631536 • Fax: 948 631550

ERREKALDE
ostatua
PLATER KONBINATUAK
PINTXOAK
BOKATAK


www.lurelizondo.com
Lur
diskoteka
otsailak 04 larunbata
10€
00:30
eraso!
otsailak 11 larunbata
15€
01:00
BARRA LIBRE
otsailak 18 larunbata
bide ertzean
otsailak 25 larunbata
8€
+ KONTSUMIZIOA
01:00
DISKOTEKA
Elizondo (Nafarroa)

GOIZUETA

# Artikutzako Metereologia Estazioak 75 urte bete ditu

## Penintsula osoan euri gehien biltzen den lekua da



ARTXIBOKOA

**San Agustin eguna Artikutzan. Urtean behin, hainbat bisitari hartzen ditu Goizuetako auzoak. Bestela, autoan sartzeko baimena eskatu behar izaten da Donostiako Udaletxean.**

Esteban AROTZENA

Artikutzako Metereologia Estazioak 75 urte bete ditu. Bere diamantezko Ezteietan, Euskal Herrian ez ezik penintsula iberiar osoan urtean euri gehien biltzen duen estazioa dela baieztatu du Espainiako Metereologia Institutuak. Banaz beste urtean 2.654 litro biltzen dira Artikutzan. Errekorra 1996an izan zen, 3.398 litro bildu zirenean. Kopuru hau, penintsula osoan urte batez inoiz neurtutako bigarren markarik handiena da. Lehenbizikoa Doneztebeko estazioan bildutakoa omen da.

Duela 75 urte, Igeldoko behatokiko arduraduna zen Mariano Doportok erabaki zuen estazioa Artikutzan jartzea. Eurien datuak 1931ko urtarrilean biltzen hasi zen –hilabete hartan euria egin zuen 19 egunetan eta metro koadroko 253 litro bildu ziren–. Tenperaturari dagozkion datuak zazpi urte beranduago, 1938ko urtarrilean hasi ziren biltzen.

75 urte hauetan bildutako datuen artean badira aski aipagarriak ere. Tenperaturarik altuena 37 gradukoa izan da, 1962ko abuztuan eta 1968ko uztailean neurtua. Guttieneko tenperatura, berriz, zero azpitik 14 gradukoa. Egun bakar batean euri gehien 1953ko urriko egun batean neurtu zen, 293 litro. Arestian aipatu dugu urte euritsuena 1966 izan zela, 3.398 litrorekin eta lehorrena berriz, 1989. urtea, 1495,3 litro besterik ez baitziren bildu.

ARESO

# Udala mendiko lanetan ari da buru-belarri

## Oinhadar mendian hamar urterako antolaketa egin da



ARTXIBOKOA

**Argazkia laz ateratakoa da. Hau idazterakoan oraindik ospatu gabe daude aurtengoak, beraz hurengoan xehetasun guztiak.**

Juana Mari SAIZAR

Oinhadar mendiaren antolaketaren plangintza10 urterako egin zuen udalak, eta horrela urtetik urtera tekniko batek aholkatzen du mendiak nola aprobetxatu eta pistak nola egin.

2005eko plangintzaren barnean Merkuko haritz amerikano eta pinu alertzeetan bakanketa egiten ari da Daniel Zabaleta, 24.400 euroren truke. Bestalde, Apaizaren galekuko pinudia matarrasan bota eta ateratzen ari da Maderas Almirente, 30.000 eurotan. Esan behar egurraren prezioa oso merke dagoela azken urteotan.

Larreko bordaldeko pinudian, terrenoa itxi ondoren, arbolak landatu behar dituzte, itxitura egin dutenak parte bat eta bestea auzolanean. Belakuko eta Felipe Bordako pistak txukundu dituzte, eta ongi egiteko asmoa dute Nekazaritza eta Abeltzaintza departamentutik diru laguntzak etortzen direnean.

LEITZA

# Herrian gas naturala hedatzeko asmoa dauka Gas Navarrak

## Bost urtetan gas-sarea jartzeko baimena eskatu du

ttipi-ttapa

Datozen bost urtetan herrian gas naturala hedatzeko sarea jartzea aurrikusi du Gas Navarra enpresak. Horretarako, Iñurrista inguruan dagoeneko egina den estaziotik abiatu eta Elgoien, Elbarren eta Amazabal ingurutik eginen litzateke sarea, gero herri osora hedatzeko. Guzira, 7.862 metroko trazatua izanen luke sareak eta aurrekontua 457.102,43 eurokoa da.

Udala zenbait promotorekin 300 etxebizitza berri egiteko aurreproiektua aztertzen ari da eta horrek Gas Navarraren interesa piztu du, inbertsioa errentagarria eginen bailuke. Dagoeneko propano gasa hedatzen duen sarea bada herrian, baina ez dira bateragarriak, diametro ezberdinak dituztelako.

### *Udaletxean eta euskaltegian indarrez sartu dira*

Iñauterietako festa egunak aprobetxatuz ezezagun batzuk indarrez sartu dira udaletxean: udal bulegoetan eta IKA euskaltegian ateak hautsi eta barrenean ibiliak zirela ohartu ziren astelehenean, baina inork ez daki noiz sartu ziren. Izan ere, ostiraletik asteartera jai zuten udaletxean eta euskaltegian. Barrenean ibili bai, baina ez omen dute dirurik eta beste deus ere ez eraman.

### *«Hazparneko Anderea» ikusgai*

Leitzako Txinparta taldeak eskainitako «Hazparneko Anderea» antzezlana ikusgai izan zen larunbatean zineman. 17 lagunek parte hartu zuten, Lur Kortaren zuzendaritzapean.





Argazkiak: Aitor AROTZENA

### *Iñauteriak bikain joan dira*

**Ez da posible aurtengo iñauterietan izandako giro bikaina bi argazkitan eta lau lerrotan laburtzea, baina atsoguratuen festa handiaren erakusgarri, gurdien kalejirako eta astearteko puxka biltzearen irudiak bildu ditugu. Igandean gisa guzietako mozorroak eta karrozak ikusi ziren Leitzako kaleetan. Sei karrozak bat egin zuten gaiarekin eta Leitzako Mundialak egin zituzten, kirol ezberdinak antzeztuz. Sukaldariek egindako paella ere banatu zen ikusleen artean. Astelehen eta asteartean eskea egin zen baserri auzoetan. Astelehenean, Arkiskil, Gorriztaran, Sakulu eta Erreka auzoetan eta asteartean, argazkian ageri den bezala, Erasote auzoan.**

OZONO-KLINIKA
J. Miguel Itarte doktorea
Tratamentua kirurgiarik gabe
- Hernia diskalak
- Belaun, aldaka, bizkarrezur, zurmioen artrosia, etab...
Merindad de Sangüesa 1, entpta (Multopticas ondoan
Tel: 948 126750 • BURLATA

luis cestau baraibar
arkitekto teknikoa
leitza 607204485
lucesba @ msn.com

Ark b arkitektura bulegoa
Celia Lana Ranz
Huarte Goitzal 7 - 31880 Leitza - 645008478 tel
Eraikuntza Hirigintza Udal-aholkularitza

BAZTAN

# Iruritako Gizarte Zentroa ixteko agindua eman dute Iruñetik

Egurrezko teilatuak ez omen ditu segurtasun baldintzak betetzen

ttipi-ttapa

Balleko Udalak espediente berri bat tramitatuko du Nafarroako Gobernuko Presidentzia, Justizia eta Barne Departamentuak Iruritako Damaso Zabalza Gizarte Zentroari irekitzeko baimena eman diezaion. Departamentu horrek aitzineko espedientea kadukatua dagoela erabaki du eta irekia mantentzeko baimenik ez du eman, duela urtebete inauguratutako eraikinean zenbait akats somatu baititu. Bertzeak bertze, etxearen sabaia zurez egina dagoela eta su hartzeko arriskua handia dela aipatu du. Iñigo Iturralde zinegotziak aipatu duenez, araudia betetzen ez dituzten gauzak moldatu eta espediente berria eginen dute. Igerileku estaliarekin ere gauza beretsua gertatu omen zitzaien, baina arazoa moldatu zuten. Iruritako Gizarte Zentroaren sabaian, suteen aurkako barniz berezia eman nahi dute.

Barne Departamentuak berehala ixteko agindua eman baldin bazuen ere, Iruritako Gizarte Zentroan lanean segitzen dute. Aginduaren berri jakin zuen egun berean, ostatua eramateko lanak Elizondoko Enrique San Joseri eman zizkion Udalak. Orain arte Iruñeko Daniel Goñik egiten zuen lan hori.



ARGAZKIA: ALICIA DEL CASTILLO

***Udalak omenaldia egin die erretiratutako bi langileri***

**Balleko Udalak San Anton eguna aprobetxatu zuen erretiratutako bi langileri omenaldia egiteko. Juan Mari Alkasenak 62 urte ditu eta 35 urtez funtzionario lana bete du udal bulegoetan. Bitxikeria gisara, Juan Mari Balleko Etxean bertan jaio zen, bere aita Lino eta Victoriano aitatxia guarda lanean aritu baitziren. Omendutako bertze langilea Juan Jose Laurnagarai arraioztarra izan zen, urtetan guarda lana bete zuena. San Anton egunean ospitalean zegoenez, Juan Luis bere semeak hartu zuen oroigarria bere izenean, Santi Aldako zinegotziaren eta Virginia Aleman alkatearen eskuetatik.**

## Baztandarren Biltzarra besta airean da berriz ere

ttipi-ttapa

Baztandarren Biltzarrak ohar baten bidez jakinarazi duenez, *«Baztandarren Biltzarra besta berriz ere airean dago»*. Elkartearen ustez, azken urteetan bestaren kanpoko irudia bada ere, barnetik ikusten den errealitatea gordinagoa da: *«orain arte lan aunitz egin izan da jende guttiren artean. Gure filosofia justu kontrakoa da: lana denen artean egitea, bakoitzak lan guttiago egiteko»*. Orokorrean, laguntza eskasa bada, zenbait arlotan are gehiago nabarmentzen da, ostatuan adibidez. Elkartearen ustez, astebururu osoan hamabi pertsonetako zortzi txanda behar dira ostatuan lan egiteko. Hurrengo otsailaren 17rako, Baztandarren Biltzarrak talde horien erantzuna hartzen badu, beraiekin harremanetan jarriz, aurten besta ospatuko da, bertzenaz ez.


Maderas GOMEN





Era guzietako ateak, janbak eta regruesoak

Egur idorrak: tropikalak, haritzak, gaztainak, pinuak izeiak...

Tarimak eta zolak: haritza, gaztaina, pinua...

Tableroak: melaminak, hidrofugoak, matxinbratuak...

GOMEN

Zaldubia industrialdea · Tel: 948 580 645 · IRURITA



ANTXITONEA
Trinketea

Jatetxea - Ostatua
Hotela - Trinketea

Menu Bereziak

Braulio Iriarte karrika
ELIZONDO

Tel: 948 581 807 · 948 581 853

BAZTAN

# Oronozko eskolaren egoera oraindik ez dela egokia salatu du Guraso Elkarteak

«Arazoa ez da konpontzen eta normaltasuna ez da ailegatzen»



UTZITAKO ARGAZKIA

**Gimnasioaren egoera ez da obra eta moldaketa egin den leku batena, argazkian ageri denez.**

**ttipi-ttapa**

Oronozko eskolaren egoera oraindik ez dela normaltasunera ailegatu adierazi du ohar baten bidez Maite Ariztegik, Oronozko eskolako Kan-Kan Guraso Elkarteko lehendakariak. Azken alean aipatzen genuen ikasleak *«normaltasunez»* itzuli zirela ikastetxera Eguberrietako oporren ondotik, baina baieztapen hori ez dela egia erran dute gurasoek. Horren erakusgarri, gimnasioan ilbeltzaren 19an ateratako argazkia, *«argi ikusten baita ez dela obra eta moldaketa bat egin den leku batena»*. Guraso Elkartetik idatzi dutenez, *«ikasleek ez dute lekurik eguneroko lana egiteko, eskola ttikia delakoz eta gainera gimnasioa falta dutelako. Oraindik usain 'susmagarrien' arazoa ez da konpondu eta Osasun Publikoko ordezkariak bertara etorriz egiaztatu du hori»*. Maite Ariztegik sinatutako idatzian ageri denez, *«sei hilabete daramagu gertaera honi bukaera ezin emanez, eta aski da, Udalak presioaren eraginez betetzen ditu 'bere obligazioak' eta gainera 'kontent' egon behar garela erraten digu oporretan egitea lortu dutelako»*. Bitartean, «arazoa ez da konpontzen eta normaltasuna ez da ailegatzen».

## FLASH

### *Gizakunde Eguna otsailaren 11n Erratzun eta Arizkunen*

Jo ala Jo eta Erratzuko Kultur elkarteak antolatuta, Gizakunde Eguna ospatuko da otsailaren 11n Erratzun eta Arizkunen. 17:00etan Merendua eta mozorro elkartzea eginen da Arizkungo Elkartean. 18:30etan Mozorro ibilaldia Arizkundik Erratzurat. 20:00etan Puxkebiltzea Erratzuko karriketan barna. 22:00etan afaria eta Jantzilo epaitzea bertsolarien laguntzarekin elkartean. Afalondoan, Jantzilo erretzea herriko plazan. Akitzeko orro eta irri Erratzun barna.

## Udal liburutegian liburuak maileguan hartzeagatik ordaindu behar ez izatea eskatu du Balleko Etxeak

Liburutegi publikoetan liburuak maileguan hartzeagatik ordaindu behar ez izatea eskatu dio ahobatez Balleko Udalak Espainiako Gobernuari. Sonia Lopez, Baztango udal liburutegiko arduradunak aurkeztutako idatziarekin bat egin zuen Udalak. Europar Batasunak Jabego Intelektualaren Legea aldatzeko proposamena egin du, honela liburutegi publikoetan egiten diren maileguengatik egile eskubideei dagokien kobraketa egin beharko litzateke. Proposamen honen aurka azaldu dira liburuzainak, *«liburutegietara bideratzen diren baliabide eskasak kontuan hartuz, aurrekontuak murriztu eta ondorio txarrak»* izanen lituzkeelako.

MENDI
ostatua
Santiago 25
948 580 313
ELIZONDO




egoi bardot obregozo arkitektoa
679649789 elizondo · braulio iriarte 33,1º D · 31700
948210963 iruñea · paulino caballero 15,1º A · 31002

ARMUA
Jatetxea
Tel: 948 599 131
Zugarramurdiko errep. 3. km
URDAZUBI







Carlos Garaikoetxea Etxenike
abokatua
ELBETE

ZUGARRAMURDI

# Ekaineko gaupasa aurten ez antolatzea erabaki du Akelarre elkarteak

Elkartearen batzorde berria osatu da eta zortzi kide berri sartu dira

Margari eta Koro

Bi erabaki garrantzitsu hartu dira Zugarramurdiko Akelarre Elkartean. Bata zuzendaritza batzorde berria osatu dela, oraingo honetan hauexek sartu dira batzordean: Marifa Irazoki, Gontxu Garmendia, Idoia Mentaberria, Argitxu Agerre, Elena Ansalas, Garaxi Amorena, Eugenio Sansiñena eta Inma Uranga.

Eta bertzalde, ilbeltzaren 20an asanblada orokorra egin zen, bertan 53 herritar bilduz. Afera zen ekainean lezeetan egiten den gaupasa antolatzen segitu behar zen ala ez erabakitzea. Botazio bat egin ondoren, gehiengo haundi batez ezezkoa atera zen. Beraz, uda honetan besta bat gutxiago izanen da gure zonalde honetan.



UTZITAKO ARGAZKIA

**Zigarren Lepoko ehiztarien etxolan ageri dira Atxuria mendi taldeko kideak, urteko lehenbiziko ateraldian. Geroztik, Lesakako San Anton baselizara joan ziren ilbeltzean. Otsailaren 13an Bera eta Doneztebe arteko ibilbidea eginen dute.**

### Atxuria mendi taldearen urteko egitaraua

"Atxuria" mendi taldeak 2006 urteko ibilaldien egutegi berria jakitera eman du.

Ilbeltzatik hasi eta abenduraino (uztaila eta agorrila kanpo) hauek dira: San Anton, Bera-Doneztebe, Bera-Hendaia, Arantza-Mendaur, Belate-Ziga, Aitzgorri, Harrikulunka, Lezetakoborda, Erratzu, eta azkenekoa erroten itzulia. Hoietatik aparte, uztailaren lehenbiziko asteburuan Ori mendira joanen dira. Azkeneko urteetako ohiturari eutsiz, hilabeteko bigarren igandetan eginen dituzte ateraldiak.

### Inauteriak otsaileko azken asteburuan

Otsailaren azkeneko asteburuan ditugu inauteriak. Larunbatean mendira ateratzeko hitzordua goizeko 9:00etan egina da, eta berandu ailegatzen direnak, "a dedo" edo behatz eginez gan beharko dute . Egun huntako afaria Herriko-Etxeko posadan eginen da eta izena posadan berean eman behar da. Igandean berriz, herria kurrituko da eta "Arleun" elkartean antolatua da bazkaria.

### Argitxu Agerreren argazki erakusketa Beasainen

Argitxu Agerre argazkilariak bere lehenbiziko erakusketa antolatu zuen gan den hilabetean. Hilbeltzaren 20tik 29ra Beasaingo "Usurbe" erakusta-aretoan bere argazki batzuk erakusgai izan ditu, franko arrakasta pullitakin. Zorionak Argitxuri; eta ea noizko plantatzen duen zerbaite halatsu herrian.





## SENPERE

# Aisialdi gunea eta ikastola aterpetuko dituen etxearen lanak hasi dituzte

### Seaskak hitzarmena egin du 20 urtez egoitza hori alokatzeko

Franck DOLOSOR

Herriko aisialdi gunea eta Zaldubi ikastola aterpetuko dituen etxearen lehen harria ezarri dute berriki herriko hautetsiek. Gazteriarentzat eta euskararen irakaskuntzarentzat behar beharrezkoa den tresna berri hori 2007ko urtarrilean prest izanen omen da. Aisialdi guneak eta ikastolak baliatuko dute herriko etxeak eraikitzen duen egoitza berri hau. Gaurko egunean, ikastolak okupatzen dituen lokala munizipalak berreskuratuko ditu Herriko Etxeak bilkura gelak eta hautetsien bulegoak egiteko.

### *Demokrazia non?*

Demokrazia non den galdetu dute duela guti Lapurdiko zenbait hautetsi abertzaleek hego Lapurdiko herri elkargoa sortu berriak Hendaian egin zuen bigarren bilkuran. Herri elkargo hunek gero eta pizu haundiagoa izanen du ondoko urteetan baina zuzendaritza taldean herrietako gehiengoetako ordezkariak baizik ez daude. Oposizioak, hauen artean abertzale mugimenduak, baztertuak dira.

Hendaiako bilkuraren sartzean, herri elkargoak herrietako kontseiluetako sentsibilitate guziak biltzea eta euskararen alde indar bat egitea galdetu zuten hautetsi abertzale hauek. Ondoko urteetan Senperen eginen den lan ainitz herri elkargoak deliberatuko ditu baina zuzendaritza batzordean Herriko Etxeko gehiengoa baizik ez da ordezkatua.



**Aisialdi gunea eta Zaldubi ikastola aterpetuko dituen etxearen lehen harria ezarri dute berriki herriko hautetsiek.**



Argazkia: Studio de la Nivelle

**Adin Ederra elkarteak ongi hasi du urte berria. Urtarrilaren 19an, taldeko kideek elgarrekin bazkaldu zuten La Nivelle ostatuan.**

### *Oier Guillan Eguna iragan da Oxtikenean*

«Maite ditugun olerkariak» deitu Hatsa elkartearen sail poetikoa Oier Guillan olerkari gaztearekin iragan da urtarrilaren 28an Oxtikenean. Lehen aldikotz «Erloju lehorrak» deitutako ikuskizun poetikoa, Idoia Beratarbide eta Antxon Gutierez-ekin batera eskaini du.






SARA

# Haurren marrazkiak sarituak izan dira laugarren aldikoz

## Ur zikinak bideratzeko lanak egin dira Agerria auzoan



UTZITAKO ARGAZKIA

**Herriko hiru eskoletako hogoita hamalau haurrek parte hartu dute aurten marrazki lehiaketan. Argazkian saritutasko hameka neska-mutikoak ageri dira Herriko Etxeko ordezkariekin.**

**Laetitia eta Sandrine**

Iaz egin bezala, aurten laugarren aldiko Marrazki txapelketa antolatua izan da Turismo bulegoan, hiru eskoletako haurrek egindako marrazkiekin. Hogoita hamalau haurrek parte hartu zuten. Marrazkien gaia, Eguberriak.

Sari banatzeak, Herriko Etxean eginak izan dira. Hogoita hamar bat haur eta buraso batzuk hor ziren. Hameka irabazle izan dira, hauek dira: Oihan Iribarren, Mael Pipers, Unai Iribarren, Katixa Lassere, Pauline Garbiso, Louis Machicote, Kevin Etcheverry, Mikel Etchenique, Quentin Guijarro, Thomas Peresaubes eta Jeremy Etcheverry. Ondotik denak hurbildu dira Krakada on baten inguruan.

### *Ur zikinen bideratzea Agerria auzoan*

Herriak lanak egin ditu Agerria auzoan ur zikinen bideratzeko. Beharrezkoa izan da lan horiek laster egitea sektore hori garbitzeko. Horotara 23.522 euro kostatu dute obra horiek, eta lan handienak herriko teknikakin eginak izan dira.Auzoek 9 000 euro eman dituzte eta bertzalde 14 522 euroko parte hartze bat galdegina izan da, SIVOM de la haute Vallée de la Nivelle-eri, lan horiek finantzatzeko.

### *Erretretatuen bazkaria*

Urtero bezala, Herriko Etxeak erretretatuak gonbidatzen ditu tripotx jatera Omordian. Aurten otsailaren 4an larunbatarekin eginen da. Izenak eman behar dira aitzinetik.

### *Sarako Izarraren mus txapelketa*

Aipatua izan zen bezala, Sarako Izarrak bere mus txapelketa antolatu du urtarrilaren 21ean. 36 ekipek parte hartu dute. Finala handian, Francis Orgogozo eta Joset Irazoqui-k irabazi dute Pettan Elizalde eta Antton Bidegainen kontra.

Bigarren finala, Pierre Arotzarena eta Jean Pierre Etcheverria-k irabazi dute Bittori eta Pierre Etcheverri-n aurka. Mus txapelketaren kari afaria antolatua izan zen, arrakasta izan duena, giro onean iragan dena.

### *Kirol emaitzak*

**-Errugbia:** Urtarrilaren 15ean, Lit et Mixen aurka aritu ziren mutilak. Bi taldeek irabazi zuten, erreserbak 25-10 eta lehen taldeak 28-13.

Otsailaren 5ean Saulten aurka jokatuko dute Saran.

**- Esku baloia:** Sarako Urtxintxako neskak Kanboren aurka jokatu dute urtarrilaren 21ean Saran. Irabazi dute 16-14.

Segi horrela!

SUNBILLAN ETXEBIZITZAK SALGAI

BELURRA
Promociones y Construcciones

2 edo 3 logeletako etxebizitzak, atikoak, garajea eta bajerak



• IGERILEKUA, BIDASOA IBAIA ETA BIDEGORRIAREN ONDOAN

• Irunetik 20 minutura
• Iruñetik 30 minutura

Leku-eder karrikan 948 450 188 - 638 845 560



# EZKONTZAK

**Carlos Alberto Cordente Martinez** eta **Ainhoa Goñi Petrirena**, Madril eta Berakoa, urtarrilaren 18an.



# SORTZEAK

**Beñat Escudero Garmendia**, Lesakakoa, urtarrilaren 15ean.
**Jone Txoperena Saldias**, Igantzikoa, urtarrilaren 19an.
**Izaro Larraioz Altzuri**, Elizondokoa, urtarrilaren 14an.
**Asier Arregi Perez**, Doneztebekoa, urtarrilaren 15ean.
**Osama El Haou Edrhourmi**, Erratzukoa, abenduaren 18an.
**Eider Intziarte Gortari**, Oronoz-Mugairikoa, urtarrilaren 13an.
**Eneko Iribarren Aleman**, Amaiurkoa, urtarrilaren 20an.
**Naroa Baraibar Dominguez**, Leitzakoa, urtarrilaren 12an.
**Lide Santano Martinez**, Leitzakoa, urtarrilaren 19an.
**Beñat Oiaregi Sagaseta**, Narbartekoa, urtarrilaren 16an.



# HERIOTZAK

**Maria Purificacion Zubeldia Uitzi**, Leitzakoa, urtarrilaren 11n, 54 urte.
**Felix Etulain Barrenetxe**, Berroetakoa, urtarrilaren 11n, 62 urte.
**Paulina Ziganda Goñi**, Narbartekoa, urtarrilaren 13an, 90 urte.
**Maria Zabalo Telletxea**, Ezkurrakoa, urtarrilaren 13an, 87 urte.
**Teodora Irigoien Bergara**, Azpilkuetakoa, urtarrilaren 17an, 89 urte.
**Clotilde Lekuberri Irisarri**, Zugarramurdikoa, urtarrilaren 21ean, 78 urte.
**Jose Angel Ariztimuño Goikoetxea**, Leitzakoa, urtarrilaren 20an, 83 urte.
**Jose Ramon Billabona Zestau**, Leitzakoa, urtarrilaren 22an, 87 urte.
**Concepcion Sarasola Inda**, Elizondokoa, urtarrilaren 24an, 87 urte.

Grupo Tanatorio Taldea
IRACHE
Maldaerreka S.L.
Funeraria Baztan

24 ORDUKO ZERBITZUA
BEILATOKIAN ETA ETXEAN

TRASLADOAK IRUÑEA, DONOSTIA ETA
IRUNGO OSPITALETATIK EDOZEIN HERRIETARA

LOREAK, HILARRIAK, ESKELAK,
ERRAUSKETAK ETA ZERBITZU OSAGARRIAK

Bera 948 63 74 04
SAN JOSE BEILATOKIA

Doneztebe 948 63 74 04
SAN PEDRO BEILATOKIA

Elizondo 948 58 19 59
FUNERARIA BAZTAN
TANATORIO BAZTANDARRA

Leitza 948 63 74 04
LEITZAKO BEILATOKIA

Lesaka 948 63 74 04
LESAKAKO TANATORIOA




ARGAZKIA: AITOR AROTZENA

**Inaxio PERURENA** *Leitzako harrijasotzailea*

## DATUAK...

- Esku bakarrarekin 220 kiloko harria altxatu zuen urtarrilaren 21ean Erandion Inaxio Perurena leitzarrak.

- 22 urte bete ditu urtarrilaren 10ean eta adin horretan esku bakarrarekin inork egin duen markarik handiena egin du. Iñaki bere aitak 268 kilo altxatuak ditu esku bakarrarekin.

- 1,95 metroko altuera du eta 128 kiloko pisua. «150 kilo baldin banitu ere gustora, ez belaunetarainoko triparekin noski, baina harrijasotzaile batentzat zenbat eta karga gehiago hobe. Gure dieta goserik ez pasatzea da».

# «Gorputzak eman dezakeen guzia emango dut etorkizunean ere, presarik gabe»

**Aitor AROTZENA**

Aurretik etxean altxatua baldin bazuen ere gustora gelditu da Inaxio Perurena Erandion egindako altxaldiarekin. *«Plazan urduri zaude, tentsioan, askotan indar gehiago egiten da baina besteetan blokeatua gelditzen zara. Zorionez ongi atera zen, ia etxean baino hobeto!».* Historiarako geldituko diren marka berriak egiten ari baldin bada, egunez eguneko jardunari begiratzea nahiago du Inaxiok: *«Lehenago zer dagoen egina eta nik zer egin behar dudan begira hasten banaiz, azkenean burutik egiten zara. Entrenatu, gimnasioan pesak altxatu eta harriekin aritzen naiz, hobetzen badut ahal bada markak eginez. Ez diot begiratzen noraino ailegatu behar naizen, segi ahal dudan arte. Nere gorputzak eman dezakeen %100a eman, minik hartu gabe eta presarik gabe. Ezin dezaket esan horrela segituko dudan bihiru urtez edo gaur geldituko naizen».* Esku bakarrarekin aitak bakarrik du

**«Aitak bere kabuz ikasi zuen harri astunak altxatzen eta berak izandako eskarmentuari esker berak sufritu zituen lesio asko nik ez ditut pasatu. Bere laguntza handia izan da»**

berak baino marka hobea: *«Esku bakarrarekin altxatzeko, behin gerrian buelta hartzen duzunean etzan egin behar duzu eta gure aitak gerria bisagra bezalakoa zuen eta horrela ailegatu zen 267 kilora, erraz esaten da!».*

### «AIMAR IRIGOIEN ETA NERE ARTEAN HARREMAN ONA DAUKAGU»

Azken markarekin, Aimar Irigoienek urrian egin zuen 218 kiloko altxaldia gainditu du. Adin beretsukoak izanik eta marka berdintsuak egiten baldin badituzte ere, errezildarrarekin ez omen du lehia berezirik Perurena gazteak: *«Kazetariek hori nahi dute, gure artean pikea izatea, baina Euskal Herria osoan 200 kiloko harriak altxatzen dituzten bi mutil gazte bakarrik gaude, eta elkarren artean pikea izatea ergelkeria da. Harreman ona daukagu eta elkarri aholkuak ematen dizkiogu».*

Plazetako markak egiteko ordu askotako lana egin behar izaten da. Inaxiok etxean bertan antolatua du gimnasio txiki bat eta han ematen ditu orduak. *«Entrenamendu luzerik ez dut egiten, astelehen eta asteartetan pesak, asteazkenean harria, ostegun eta ostirala berriz pesak, larunbatean harria eta igandean jai. Pesetan ongi ari banaiz edo indarrean nagoela somatu eta konfidanta hartu ondotik, federaziora deitu eta marka ahalegina antolatzen dute».* Bost urtetan hartu zuen lehen harria Leitzako plazan eta 13-14 urtetan serioagoa hasi zen: *«Harriak Euskal Herria osoa ezagutzeko aukera eman dit, Kanarietan egon naiz harriari esker. Ez dut imaginatzen nere bizia harritik gabe!».*

PILOTA




ARGAZKIAK: OSKAR TXOPERENA

**Txapelketan parte hartu duten pilotari gehienak ageri dira argazkian, sari banaketaren ondotik. Beheitiko argazkian, finalistak ageri dira, txapeldunak eta txapeldunordeak.**

# Bortzirietako eskuz banakako bosgarren txapelketako finalak jokatu ziren Etxalarren

## Urtarrilaren 21ean, kategoria ezberdinetako hamar final burutu ziren

**Aitor AROTZENA**

Urtarrilaren 21ean jokatu ziren Etxalarko udal pilotalekuan Bortziriak elkarteak bosgarren aldiz antolatutako eskuz banakako txapelketaren finalak.

Aurrebenjamin mailan, Etxalarko Altxata elkarteko Jon Iparragirre eta Lesakako Arkupeko Pello Telletxea aritu ziren aurrez aurre. Ttikienak izanik ere, partida polita eskaini zuten eta azkenean etxekoa nagusitu zen, 18 eta 9 irabazi baitzuen Iparragirrek.

Aurrebenjamin mailan, Igantziko Biltokiko Oihan Canabalek 18 eta 7 irabazi zion Berako Gure Txokoako Peio Migelenari.

Umeak B mailan, Gure Txokoako bi pilotarien arteko final estua eta borrokatua ikusi zen. Azkenean, Jokin Pinatxok 18 eta 17 irabazi zion Andoni Lazkanotegiri.

Umeak mailan ere lehia parekatua eskaini zuten Igantziko Biltokiko Unai Telletxeak eta Berako Gure Txokoako Beñat Mitxelenak. Azkenean, igantziarra nagusitu zen 18 eta 16.

Kimuak B mailan, etxalartarren arteko norgehiagokan, Xabier Gallardonek 18 eta 10 irabazi zion Aitor Danborienari.

Kimuak mailan emozioz betetako finala eskaini zuten Igantziko Biltokiko Adur Yancik eta Lesakako Arkupeko Unai Zamoranok. Lesakarra aitzinetik joan zen kasik partida guzian,




baina azkenean igantziarra gailendu zitzaion, 18 eta 17.

Haurrak B mailan, lesakarren arteko finalean, Mikel Maiak 18 eta 13 irabazi zion Josu Sanjurjori.

Haurrak mailan ere Lesakara joan zen txapela, Beñat Oronozek 18 eta 7 irabazi zion Txarutako Mikel Kanpori.

Kadete mailan bi txapelak Igantzi aldera joan ziren. Kadete gazteak mailan, Beñat Txoperenak 22 eta 20 irabazi zion Txarutako Oier Bereauri eta kadete mailan, Imanol Goienetxek 22 eta 15 irabazi zion Txarutako Jon Ollo urdazubiarrari.

Finalak jokatu ondotik sariak eman zitzaizkien txapelketan parte hartu duten pilotari guziei eta argazkiak atera zituzten elkarrekin. Ondotik, bazkaria izan zuten antolatzaile, laguntzaile eta pilotariek.

# AGENDA egunez egun

## ZINEMA

**LEITZA**

**Otsailaren 3 eta 5ean** «Paradise Now» filma eskainiko da zineman.
**Otsailaren 10 eta 12an** «Flores Rotas» filma eskainiko da zineman.
**Otsailaren 17 eta 19an** «Una historia de violencia» filma eskainiko da zineman. Emanaldiak ostiraletan 22:30etan eta igandetan 19:30etan.

## ANTZERKIAK

**BERA**

**Otsailaren 5ean** Polichinelle konpainiaren «Giñolen abenturak» giñol antzerkia 17:00etan Kultur Etxean.
**Otsailaren 11n** Pol Produkzioak taldearen «Ongi ibili» antzeslana ikusgai 22:00etan Kultur Etxean, Berako Euskara Batzordeak antolatua.

## SOLASALDIAK

**ELIZONDO**

**Otsailaren 10ean** «Komunikazioa eta hizkuntzaren kalitatea: euskara egokia, euskara jatorra, euskara zuzena» solasaldia eskainiko dute Arizkunenean 19:00etan Joserra Gartzia, Kike Amunarriz eta Andoni Egañak.

## ERAKUSKETAK

**LESAKA**

**Otsailaren 13tik 25era** Iñaki Bergararen «Iñauteriak» argazki erakusketa Beti Gazten, astelehenetik larunbatera, 18:30etatik 20:30etara.

## BILERAK

**LESAKA**

**Otsailaren 14an** Agenda 21en bosgarren foroa eginen da pleno aretoan 19:00etan. Gaia: «Ur eta hondakinen kudeaketa, ingurumena...».

## JAKIN BEHARREKOAK

# Emaiozu sorpresa bat zure ttikiari

### Tarteka egunerokotasunetik ateratzea komenigarria izaten da



Haurrarekin une goxoak pasatzeko aukera polita da arratsaldeko eskurtsioa.

Haur ttikientzat eguneroko ohitura eta errutina batzuk mantentzea hagitz onuragarria baldin bada ere –konfidantza ematen die, zer espero dezaketen badakitelako eta beraien segurtasun ezak kontrolatzen dituztelako–, modu berean komenigarria da tarteka harritzea, bizitzak batzutan espero gabeko sorpresak ematen dituela erakusteko.

Hemen zure ttikia harritzeko ideia batzuk emanen ditugu, baina kontuan hartu behar da haur bakoitza mundu bat dela eta batzuei harritzen dienak bertzeei ez die deus erraten. Beraz, zure semealaba bertze inor baino hobeki ezagutzen duzunez, zein zu baino hobe bere neurrira egindako sorpresa diseinatzeko?

• Arratsaldeko eskurtsioa: Arratsalde osoa berari eskaini behar diozula erran eta aukera ezberdinak proposatu: arratsaldean hondartzan edo mendian pasatzea, jolasparkera joatea, akuariora... Garrantzitsuena, zuk proposatutako aukeren artean berak erakargarriena iruditzen zaiona aukeratzea da.

• **Zinera joan:** Haur batentzat, zinera doan lehenbiziko aldia zerbait magikoa da eta bere memorian gordeko du oroitzapen hori betirako. Filmea ikusi ondotik, horri buruzko galderak egin: zer da gehien gustatu zaiona, dibertigarria iruditu ote zaion... eta egiten dizkizun galdera guziak erantzuteko prest egon!

•**Hartzatxoak urteak betetzen ditu:** Bere hartzatxo edo panpinik gogokoenaren urtebetetzea ospatu. Etxean daukazuen maskotaren urtebetetzea ere ospatzen ahal duzue. «Bestaren» prestakuntzan parte har dezala. Haurrak ttikiak direnean, gauzek ere bizia dutela uste dute eta ilusio handia eginen dio bere pelutxeari urtebetetze besta ematea.

• **Akanpatzea:** Hemen akanpada berezia proposatuko dizuegu: bere logelan egindakoa. Denda koltxa eta maindireekin egiten ahal duzue. Handixeagoa denean lagunen bat ere gonbidatzen ahal du.

Baina, hasieran aipatu bezala, hauek ideiak bertzerik ez dira. Bere neurrira egindako sorpresa prestatzen duzuenean, zuk ere inoiz galdu behar ez genukeen magiaz betetako urte horietara bueltatzeko esperientziaz gozatuko duzu.

**Rakel AMIGO**

## LIBURUAK




*Riomundo*

**Jon MAIA SORIA**

*TXALAPARTA, 2005*

Jon Maia Soria Urretxun jaio zen 1972an eta egun Zumaian bizi da. Euskal Filologian lizentziaduna da, eta Euskal Herriko Bertsolari Txapelketa Nagusian hirutan iritsi da finalera. Hedabideen munduan ezaguna, musikaren alorrean ere lan egindakoa da: talde eta musikari ugarirentzako hitzak idatzi ditu eta, horrez gain, Karidadeko Benta taldearen sortzailea, letragilea eta abeslaria da. Orain bere lehen liburua argitara eman du, «Riomundo», egoera politikoak behartuta eta bizimodu hobearen bila Extremaduratik etorritako familia baten historia, Jon Maia beraren aiton-amonen historia izan daitekeena. Halere, ez omen da nobela autobiografikoa: *«Oinarrian doan haria nire familiaren ibilbidea da eta pertsonaia batzuk ia errealak izan arren, nik egin dudana, ezagutzen dudanetik abiatuta nobela bat idaztea izan da, ez biografia bat ezta azterketa soziologiko bat ere».*

# Lasao

egurrezko altzaria



EUSKAL HERRIAN ESTIMATZEN DEN ALTZARIA

www.lasao.com

Lasao industrialdea 20730 AZPEITIA (Gipuzkoa) Tel. 943 15 11 82

e-mail: informacion@lasao.com

# MERKATU TTIKIA

ZEIN ERRAZA DEN ZURE ANUNTZIOA HEMEN JARTZEA

00-34 948 63 54 58

## ...ETA GAINERA, ZURE BERRI ESKUALDEKO ETXE GUZIETAN IZANEN DUTE!!

Sail honetan partikular, profesional eta merkatarien informazio eta zerbitzuen berri ematen da. ttipi-ttapak ez du bere gain hartzen argitaratuak diren iragarkien ondorioz sortzen ahal diren operazioen erantzunkizunik.


**ETXEBIZITZAK**
101. Saldu
102. Erosi
103. Errentan emateko
104. Errentan hartzeko
105. Etxe konpartituak
106. Bertzelakoak

**GARAJEAK/LOKALAK**
107. Saldu
108. Erosi
109. Errentan emateko
110. Errentan hartzeko
111. Bertzelakoak

**LURRAK/ORUBEAK**
112. Saldu
113. Erosi
114. Errentan emateko
115. Errentan hartzeko
116. Bertzelakoak

**ZERBITZUAK**
201. Hargin/Igeltseroak
202. Pintoreak
203. Elektrizistak
204. Iturginak
205. Zurginak
206. Mendi lanak
207. Garraioak
208. Bertzelakoak

**LANA**
301. Eskariak
302. Eskaintzak

**IRAKASKUNTZA**
401. Eskaintzak
402. Akademiak

**MOTORRA**
501. Salerosketak
502. Tailerrak

**ANIMALIAK**
601. Emateko
602. Salerosketak
603. Klinikak

**DENETARIK**
701. Galdu / aurkituak
702. Salerosketak
703. Bertzelakoak

**HARREMANAK**
801. Agurrak





**ADOS**

• **ELIZONDO.**
- Eraikuntza berriko azken pisua aparkalekuarekin salgai.
- 2. eskuko apartamentu, pisu eta unifamiliarra salgai.
• **BERA-LESAKA-SUNBILLA.**
- 2. eskuko pisuak eta lur eremuak salgai.
• **DONEZTEBE.**
- Eraikuntza berriko etxea terrenoarekin salgai.
- Erdi erreformatua dagoen borda bere terrenoarekin salgai.
- Unifamiliarra 2.000 m²ko partzelarekin salgai.
- Pisuak erosten dira.
• **BAZTAN.**
- Baserri, borda eta 20.000 m²ko lur eremua salgai.
- Erreformatuak eta erreformatzeko dauden bordak salgai.

**BAZTAN-BIDASOAN**
baserri, borda, etxeak, pisuak eta lur eremuak salgai.
948 451 841 / 948580705
www.ados-inmobiliaria.com

**ANZABAL**
Santiago 15 - ELIZONDO
Tfnoa: 948 580804
anzabal@anzabal.com

**BAZTAN-BIDASOA**
Lur, etxe, baserri, borda eta pisuen salmenta eta alokairuak.
**BAZTAN-BIDASOA**
Etxebizitzak behar ditugu errentan emateko eta saltzeko.

Lurrak erosten dira. Permutak ere egiten dira.
ASGEIN IRUN
628 725328


### ETXEBIZITZAK
#### 101 Saldu

**DONEZTEBE.** Pisua salgai. ☎ 948 451977.

**BERA.** Etxe baten erdia salgai. 2 etxebizitza, 2 garaje eta 80 m²ko lokalarekin. Egokia familia bereko bi pertsonentzat. ☎ 616 244210.

**LEITZA.** Pisua salgai. ☎ 667 851039.

### ETXEBIZITZAK
#### 103 Errentan eman

**DONEZTEBE.** 101 m²ko pisua errentan eman nahi da. Pisu berria eta altzariekin. Garajea ere badu. ☎ 660 916833.

**ALMANDOZ.** Pisua errentan eman nahi da, kalefakzioarekin, amueblatua. ☎ 948 585008 (arratsetan).

**SUNBILLA.** Pisua errentan emateko. Mobleztatua. ☎ 948 450767.

### ETXEBIZITZAK
#### 104 Errentan hartu

**BERA-LESAKA.** Pisua errentan hartuko nuke. ☎ 647 840343.

**BERA-LESAKA.** Pisua alokatuko nuke. ☎ 635 753486 (Alfonso).

**BERA.** Pisua errentan hartuko nuke. ☎ 948 631335 (Koldo).

### ETXEBIZITZAK
#### 105 Etxe konpartituak

**ELIZONDO.** Pisua konpartitzeko eskaintzen da. ☎ 620 778953 (eguerditan).

### GARAJEAK/LOKALAK
#### 107 Saldu

**ELIZONDO.** 70 m²ko bajera salgai, 4 metro zabal dituen atearekin. Pilarerik gabe, argi eta ur konexioarekin. ☎ 629 656542 edo 948 161593.

### GARAJEAK/LOKALAK
#### 109 Errentan eman

**LESAKA.** Lokal komertziala errentan emateko Bittirian. ☎ 696 193848 (20:00etatik aurrera deitu).

**LESAKA.** Lokal komertziala errentan emateko Bittirian. ☎ 696 193848 (20:00etatik aurrera deitu).

**LESAKA.** Bi garaje plaza errentan emateko Bittirian. ☎ 696 193848 (20:00etatik aurrera deitu).

**BERA.** Garajea errentan emateko, Correos ondoan. Aproposa motoak eta bizikletak gordetzeko. ☎ 948 630881.


**Lan bila zabiltza?**

**LAN ESKAINTZA**
LANGILEAK
Obrak, gidariak, zaborra, garbitasuna. Udaletxetarako behar dira.
PEOIAK eta OFIZIOKO LANGILEAK ERAIKIN PUBLIKOETAKO MANTENIMENDUA
- Igeltseroak
- Elektrizistak
- Iturginak Ordutegia: Astelehena-ortzirala 8:00-15:00

**LAN ESKAINTZA**
GARBITZAILEAK
Lanpostu finkoak:
- Eraikin publikoak
- Ikastetxeak
- Ospitalak
Soldata: 900 € Ordutegia: Astelehena-ortzirala 8:00-15:00
SUKALDE LAGUNTZAILEA
- Sukaldariak
- Kamareroak
Lanpostu finkoak
Ordutegia: Betatik 15etara

Presta zaitez. Informazioa dohan.
948 199 596


### LURRAK/ORUBEAK
#### 113 Erosi

**BAZTAN-BIDASOA.** Mendian 30.000-80.000 m² inguruko lur eremua erosiko nuke. Bordaren bat badu ere berdin. ☎ 670 415825 (Iñaki).

### LANA
#### 301 Eskariak

**Etxeko lanak**, agureak eta haurrak zaintzen ohituratuta, 29 urteko neska eskaintzen da. ☎ 617 902072.

**Erizain laguntzailea** (auxiliar) eskaintzen da edozein motako lanean aritzeko. ☎ 610 402190.

**Neska gazte euskalduna** prest egongo litzateke zaharrak eta haurrak zaintzeko, etxeko lanak egiteko orduka, haurrak eskolatik jasotzeko, ikasketetan laguntzeko... Ikasketak euskaraz eta norberaren kotxearekin. ☎ 615 782292.

**MALERREKA.** Zurgin lanetan aritzeko edo baserriren batean laguntzeko prest dago mutil bat. ☎ 677 014617.

**Emakumea** eskaintzen da lan egiteko, haurrak edo adinekoak zaintzen, garbiketan, lbardinen... Paperekin. ☎ 661 013168 (Natalia).

**Eguerdiz** lan egiten ari den irakasle bat goizetan (umeak zaintzen, etxeak garbitzen, lantegi batean...) lan egiteko eskaintzen da. ☎ 605 764089.


**BORDA**
pladur lanak
sua • zarata • beroa
ISOLAMENDUAK
• Erreformak
• Dekorazioak
• Sabai modularrak
bordapladur@telefonica.net
Tel-Faxa: 948 637 546 · 609 477 277

betiko
P.V.C eta aluminio aroztegia

Ordoki Industrialdea, 31713 Arizkun (Nafarroa)
Tfnoa: 948 453 259 • Faxa: 948 453 423
e-posta: betikopvc@teleline.es




*Estalpe Etxiak*



Betikon era guztietako
itxierak egiten ditugu
kolore desberdinetan:
haritza
piñua
kaoba




*Pertsianak*





***Fabrikanteak garenez preziorik onenak eskaintzen ditugu***





**PVC eta ALUMINIOarekin lan egiten dugu**











**ESKATU AURREKONTUA KONPROMEZURIK GABE • 948 453 259 telefonoan edo bisitatu gure erakusketa**




INAUTERIAK 06